

“Luxua da Fermin Muguruzagaz lan egitea; asko ikasi dut beragaz”

Zalao Fuertes
Argazkilaria • 15



Euskaraldia ehunka lagun batu dira dagoeneko eta parte hartzeko deialdia indartu dute

Euskaraldia | Elorrion hainbat ekintza iragarri dituzte eta Durangon dinamikaren egoitza inauguratu dute. • 6





Kalian gora, kalia behera?

Otxandiegaz batera, Euskal Herrian sokamuturraren tradizioari eusten dion herri bakarrenetakoa da Durango. Jende askok parte hartzen du, baina aurkako batzuk protesta egitera irten dira aurten kalera. Galdeketa egitea eskatuko diote Durangoko Udalari. • 2-3

Zornotzako elkarteek Euskal Jaia antolatuko dute elkarlanean

Zornotza • 26 elkarte, talde eta ikastetxek indarrak batu dituzte zapatuan Euskal Jaia antolatzeko. Goizean bost gunetan banatuta jarriko dute jai giroa, eta eguerditik aurrera Zelaieta parkean bilduko dira. • 9



UNAI

GARAY

ITURGINTZA

BEROGINTZA

GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

“Abereari tratu txarra ematen diogula diote, baina ez da egia, ez dakit nondik atera duten hori”

'Zezenak dira' ekimenaren antolatzaileek ez dute ulertzen bigantxarik bako San Fausto jairik, eta abereek ez dutela sufritzen uste dute

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Sokamuturra prestatzen ibiltzen den taldeko kide bi dira Angel Caballo eta Rai Bikandi. Zeregin horretan 30 urtetik gora daramatza lehenak, eta 8 bigarrenak. Joan zen asteburuan "jende pila bat" batu zela diote. 11 lagunek zauri arinak eduki zituzten eta 85 urteko gizon bat ospitalera eraman zuten kolpeagatik, baina ez ei du hausturarik –elizara joan gura zuen, eta zezena- ren ibilbidean sartu zen–.

Sokamuturraren aurkako manifestazioa egin zuten zapatuan. Zer iritzi duzue?

Angel Caballo: Arrakastatsua izan dela diote, baina nik ez dut horrela ikusten, kasik jende guztia kanpoko baitzen. Horregatik, nire ustez, porrota izan da. Euren ideiak errespetatzen ditut, baina eurek ere errespetatzen ditutela nireak. Abereari tratu txarra ematen diogula diote, baina ez da egia, ez dakit nondik atera duten hori. Bigantxak ez dira ukitu ere egiten, eta norbaitek hori eginez gero errieta egiten diogu. Guk zaindu egiten ditugu abereak. Non dago tratu txarraren muga?

Zenbat lagun egoten zarete sokamuturra prestatzen eta zaintzen?

A.C.: Ibilbidean zehar hamabost bat lagun egoten gara. Batez ere zaintza lana egiten dugu: bigantxak ihes ez egiteko, adin txikikorik ez egoteko, mozkortiak kanporatzeko...

Rai Bikandi: Kaleetako ateak ere zaintzen ditugu, zarratuta mantentzeko eta beharrianen bat egonez gero, zabaltzeko.

Txikitatik bizi duzue sokamuturra?

A.C.: Oso txikitatik. Gorbea taberna gainean bizi nintzen, eta 3 urte nituenean jada, etxeko leihora irteten nintzen sokamuturra ikusteko.

R.B.: Orain barrura sartzea debekatu dute 14 edo 15 urtekoek, baina adin horregaz, beti egoten nintzen sokamuturraren. Ez nintzen zezenarenengana hurreratzen, baina jaia sentitzeko modu bat zen.

A.C.: Gaur egun, arauak dio 16 urtetik beherakoak ezin direla ibilbide barruan egon, eta horregatik grada bat muntatzen da Santa Anan. 07:30ean hasten da Zezenak dira, eta 07:00etarako grada beteta egoten da. Afizio handia dago; Zezenak dira barik ez legoke Durangoko jairik. **Ba al dakizue 'Zezenak dira' noiztik egiten den Durangon?**

A.C.: 520 urte inguru. Aspaldi, bigantxak Kalebarriako korta batean egoten ziren, eta edozein ospakizunen harira ateratzeko ohitura zegoen, herriko jaiez aparte ere



bai. Ezkontza bat zegoenean, mutilek bigantxak eskatu zitzaizketen udaletxean. Berdin urtebetetze festa batean, edo lehen jaunartze egunean. Aportazio txiki bat egin eta baimena ematen zieten.

R.B.: Jaiaien sinbolo bat dira bigantxak, eta ekimen parte-hartzailea eta espontaneo da. Orain errotuta badago, lehen askoz gehiago. Gaur egun ekintza asko daude jaietan, baina lehen jaia bigantxak ziren.

Familietan transmititzen da?

A.C.: Tradizioa ez hausteko gogo bat dela uste dut. Nik ere umea txikitatik eramaten nuen zezen plazara, eta gaur egun Espainiako errektariaren txapelketan parte hartzen ari da.

22.000 euroko aurrekontua duzue, jaietako aurrekontu osoaren ia %10. Ez al da asko?

“Jaiaien sinbolo bat dira bigantxak, eta ekimen parte-hartzailea eta espontaneo da”

“Afizio handia dago; ‘Zezenak dira’ barik ez legoke Durangoko jairik”

A.C.: 22.000 euroko aurrekontu horretan, abeltzainak, aseguruak, Gurutze Gorria eta azpiegiturak ordaintzen dira. Egunak batuta, eta 10 ordu direla kontuan hartuta, begiratu ordua zenbatean ateratzen den.

R.B.: Bost egun dira eta ez da karua. Edozein orkestra 10.000 euro kostatzen zaizu gaur egun.

Seguru makina bat anekdota duzuela kontatzeko.

A.C.: Hesiak ipintzen ez ziren saioan, gura genuena egiten genuen bigantxekin. Pol-Polekoak esaten zigun taberna husten laguntzeko, eta bigantxa sartzen genuen. Gorbea tabernan eta gozotegian ere bai. Udaltzainen bulegoan ere sartzen genuen batzuetan. Astakeria ugari egin genituen. Amaitzean, gosaltzera joan eta tabernak beteta zeudenez, noizbait bigantxagaz joaten ginen lekua egiteko!



Joan zen bariku goizean, jaietako lehen sokamuturra egin zuten Alde Zaharreko kaleetatik.

‘Zezenak dira’ egiten jarraitu ala ez erabakitzeko, kontsulta bat eskatuko diote Durangoko Udalari

70 bat pertsona batu ziren, joan zen zapatuan, Durangoko jaietan sokamuturra egitearen aurkako manifestazioan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Sokamuturraren aurkako manifestazioa Goienkalean gora doan bitartean, *Kalian gora, kalia behera, kalia gora zezena!* entzuten da kuadrilla baten kantalditik. Abestietaraino heldu zaigun tradizioa eta gauzak aldatzeko gogo, parez pare. Mobilizazioa ez da arrakastatsua, 70 bat lagun batu dira, baina jaietako nobedadeetako bat izan den protesta hurrengo urteetan sendotzen joatea gura dute antolatzaileek. Ez hori bakarrik; *Zezenak dira* ekitaldia egiten jarraitu ala ez erabakitzeko,

konsulta bat egitea eskatuko diote Durangoko Udalari.

Zenbait durangarren artean berba eginda prestatu dute manifestazioa, eta elkarte animalisten babesa eduki dute. Pacma taldeko Jorge Iraurgi durangarra da deitzaileetako bat. “Tradizioa eteteko ordua da. Lehen aldia izateko, manifestazioa ondo egon da, durangarren falta sumatu badugu ere. Pozik gaude lehen aldiz egin dugulako, eta argi utzi gura dugu urterik urte mobilizazioak egiten jarraituko dugula. Astiro-astiro, gutxienez udalean

konsulta bat lortu arte”. Gorka Unzuak ulertzen du jende lar batu ez izana. “Durangon sokamuturra hain errotua egonik, ez nuen jende askoz gehiago espero. Gainera, denak ados egon ez arren, esango denaz beldurra dagoela uste dut”.

Silvia del Amo izan da manifestazioaren ideia hasieratik bultzatu



Manifestazioa antolatzen eta sustatzen ibili diren durangarretako batzuk, mobilizazioaren ostean.

Iraurgi: “Pozik gaude lehen aldiz egin dugulako, eta argi dugu urtero mobilizazioak egiten jarraituko dugula”

duena, eta argi ikusten du bigantzek “tratu txarra” jasotzen dutela. Herritarren zergen bidez sokamuturra finantzatzearen aurka ere badaude.

Denborak esango du sortutako eztabaida berez urtzen den edota adarretatik heltzeko ordua ailegatzaren den.



Udaletxetik hasi eta Alde Zaharra zeharkatu zuen mobilizazioak.



Hainbat pankarta eraman zituzten manifestariak.

Asto eta idi probak diruz laguntzen jarraitzea erabaki dute mallabitarrek herri galdeketa

Zornotzako talde batek sinadura bilketa abiatu du idi proben inguruko galdeketa deitzeko

DURANGALEA • JONE GUENETXEA

Jai eta oskapizunekin zerikusia duten ekitaldietan abereen parte hartzea zalantzan jartzen duten hainbat herritar mugitzen hasi dira Durangaldean. Mallabian, esate baterako, herritar bik sinadurak batu zituzten udal azpiegiturretan abereen probak egitearen aurka. Gainera, ekitaldi horiek diru publikoagaz babestea kritikatu zuten. Egoera horren aurrean, Mallabiko Udalak gai honen inguruko herri

galdeketa antolatu zuen joan zen uztailaren 1erako. Domeka horretako galdeketa 204 mallabitarrek parte hartu zuten. 119 pertsona idi probak diru publikoagaz babestearen alde agertu ziren, 81 kontra eta 4 boto zuriak izan ziren. Beraz, galdeketa loteslea izan zenez, aurrerantzean ere Mallabiko Udalak idi eta asto probak diruz laguntzen jarraituko du. Horrez gainera, espazio publikoak erabiliko dituzte ekitaldi horietarako.

Zornotzako herritar talde batek antzeko ekimena jarri du martxan. Boroako jaietan antolatzen dituzten idi proben eta jaietako uso-tiroaren inguruan galdeketa eskatzeko sinadura bilketa abiatu dute *change.org*-en. Ekimenaren sustatzaileek diotenez, sarritan frogatu da idi probetan “legez kontrako substantziak” erabili izan direla. Era berean, usakumeak hiltzeko inongo justifikaziorik ez dagoela nabarmendu dute.



Uztailaren 1ean Mallabian egin zuten galdeketa irudia.



Mireia Elkoroiribe eta Ander Gorrotxategi, joan zen egunean Batzokian emandako prentsurrekoan.

EAJk 120 proposamen batu ditu aurrera begirako ibilbide orrian

Gorrotxategik azaldu zuen herritarrengana "hurbiltzea eta zabaltzea" izan dela 'Durango Helburu' izeneko prozesuaren asmoa; urtarrean beste fase bat hasiko dute

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Kasik urtebetez 120 pertsonagaz batera era parte-hartzailean garatu duen *Durango Helburu* proiektuaren emaitzak aurkeztu zituen joan zen egunean Durangoko EAJk, Ander Gorrotxategi presidentearen eta Mireia Elkoroiribe alkategaiaren eskutik. 120 proposameneko dokumentu bat osatu dute, eta eurentzat aurrera begira lan egiteko ibilbide-orri bat izango dela diote.

Gorrotxategik azaldu zuen prozesuaren garapenagaz pozik daukela. Herritarrengana "hurbiltzea eta zabaltzea" sustatu gura izan dute. Elkoroiribek nabarmendu zuen sektore eta ideologia ugaritako jendeak parte hartu duela, EAJko

afiliatu ez direnek ere bai. Urtarrean, bigarren fase bat zabalduko dute, herritar guztiei begira.

Estazioko lurren planagaz birika handi bat garatu gura dute

Merkatu plaza berritzea

Elkoroiriberen esanetan, argi dute bost ideia 2019ko udal hauteskundeetarako programan barneratuko dituztela, eurentzat "estrategikoak" direlako. Gainerakoak aurrerago aztertuko dituzte.

Merkatu plaza eraberritzea da EAJren ideia estrategiko bat. Era-kargune bihurtuz, Alde Zahar osoa "merkataritzagune ireki handi bat" bihurtzea litzateke asmoa. Proiektzio ekonomikoari dagokionez, Eguzkitzako lurretan industrialde

bat sortzea da euren proiektu nagusia. Goi mailako prestakuntzan, erkidegoan erreferentzia izango litzatekeen ikastetxe bat zabal-tzea. Estazioko lurren planagaz "birika handi" bat garatu gura dute —etxeak mantenduz—, eta trenbide zaharraren trazatua oinezko eta bi-zikletei bideratzea, mugikortasun jasangarria bultzatzeko. Bestalde, azkenaldian eztabaidagai den airearen kalitatearen inguruan, enpresen emisioak aztertzea izan da prozesuan sortutako ideia bat.

Hauteskundeak irabaziz gero, "gobernatzeko modu gardenagoa, parte-hartzaileagoa eta hurbila-go" jorratuko dutela hitz eman du jeltzaleen hautagaiak.

Enpresen emisioak aztertzea izan da prozesuan sortutako ideia bat

Antso Estegiz auzuneko parkea eraberritu du Durangoko Udalak

Irigorasek dio zonalde berde bat irabazi dela, eta Riosek nabarmendu du ingurunea puntu beltza zela

DURANGO • M.O.

Antso Estegizeko parkea hobetze-ko lanak amaitu ditu udalak. Urbanizazio lanen baitan, sarbideak hobetu eta aldapak ipini dituzte irisgarritasuna hobetzeko asmoz, eta LED teknologiadun 13 farola ere ezarri dituzte argitasuna lortzeko. Aitziber Irigoras alkateak azaldu du "aurrerapen garrantzitsua" eman dela lanekin, eta zonalde berde bat irabazi dela auzoarentzat zein herriarentzat.

Irigorasen esanetan, auzotarren aspaldiko eskakizunetako

bat izan da parkea eraberritzea. Pilar Rios alkateordeak nabarmendu du parkea emakumeek identifikatutako puntu beltza zela, eta hori aldatu gura izan dutela. Gainera, "auzoak udalarentzat lehentasuna" direla erakusten du obrak, Riosen ustez. 173.000 euro inbertitu dituzte obra hori egiteko.

Bestalde, auzune osoan aldaketa urbanistikoak egitea aurreikusi du udalak, eta horren proiektua urtea amaitu aurretik idaztea gura dute.



Durangoko udal ardurandunak Antso Estegizen.

Erabakik 3.700 sinadura batu ditu galdeketa alde

DURANGO • M.O.

Estazio zaharreko lurren eremu-ko planari buruz herri galdeketa egin gura du Erabakik, eta uztailean 3.033 sinadura entregatu eta gero, orain beste 662 gehiago aurkeztu ditu udaletxean. "Hauek

azkar balioztatzea eta gaia osoko bilkurara eramatea espero dugu, herri galdeketa lehenbailehen deitu ahal izateko", adierazi dute.

Uztailean aurkeztutako sinadurak aztertzen dabil udala. Galdeketa herri ekimenez eskatu ahal izateko, hautes-eroldaren %10en babesa behar da legearen arabera. Azken hauteskundeetan errola 22.060 pertsonakoa zela eta ondorioz 2.206 sinaduragaz nahikoa dutela azaldu dute Erabakikoek.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko urriaren 19a
17. urtea - 738. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

2015 **Bikam**
Legeordena
Legeordena
Legeordena

PEFC
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Gazte Eguneako bazkarian 800dik gora gazte batu ziren Landakoko Txosnagunean.



Sukalki txapelketaren lehen edizioko irabazleak.

Patxikotxuri eta Pantxikeri agur esango diete asteburuan Durangon

Bihar San Fausto jaietan ospatuko duten Mozorro Egunagaz Durangoko kaleak jai giroz beteko dira; 13:00etan haurren desfilea egingo dute, eta 18:30ean, taldekakoa

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Patxikotxuri eta Pantxikeri agur esateko ordua helduko zaie asteburuan durangarrei. Urriaren 11tik jaietan murgilduta egon eta gero, azken hiru egunak dituzte aurretik. Indartsuena biharkoa izango da, Mozorro Eguna. 13:00etan haurren mozorro desfilea egingo dute Andra Marian, eta 18:30ean, taldekakoa, Madalenatik hasita. Gainera, Txosna batzordeak *tribu urbanoak* gaia proposatu du biharko.

Herriko kaleak kolorez eta jai giroz beteko dira.

Bestalde, jaietako lehenengo asteburuaren balantze positiboa egin du udalak. Ekitaldietan egondako partaidetza handia nabarmendu du, eta "ez dela gertaera aipagarri-

rik jazo". Eraso sexisten salaketarik ez da publiko egin, momentuz, ANBOToko erredakzioa zarratu denean.

Txupinazoak, artopilen banatzea, lehiaketa gastronomikoak, *Zezenak Dira* eta musika emanaldiak aipatu ditu udalak partaidetza handiaren erakusle. Txosnagunean ere, ehunka lagun batu ziren Gazte Egunean eta paella txapelketan. Orokorrean eguraldi onak lagundu arren, domekako euriaren eragi-

Txosna batzordeak 'tribu urbanoak' gaia proposatu du biharko



Durangok Planto ekimenekoek pankartak zabaldu zituzten txupinazoan.

Jaietako lehen asteburuaren balantze positiboa egin du udalak

nez Bizikleta Festa eta zezen plaza-ko ekintza bat bertan behera geratu ziren. Txu-txu trena ere ez zen atera matxura tekniko baten ondorioz, eta bihar eskainiko dute zerbitzua, leku eta ordu berean.

Askotariko ardoak dastatzeko eta tabernariak egindako pintxoak jateko aukera eskainiko du Ardo Azokak Mallabian

Urriaren 27ko zapatuan hirugarren aldia egingo du Mallabiko probalekuan antolatuko duten Ardo Azokak

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Urriko Jaia ekitaldiz beteta dator. Aurten hirugarren aldia egingo duen Ardo Azoka izango da hitzordu nagusietako bat. Proba-

txoak ere salgai egongo dira. Azokarako sarrera 7 euro izango da. 22:30an The Van, Please, Governors eta Ze Esatek! taldeen kontzertuak egongo dira.

Bezperan, urriaren 26an, txupinazoa botako dute udaletxeko

balkoitik, 18:30ean. Ostean, Elizpeko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte, Dunbots txaranga herritik zehar giroa berotzen dabilen bitartean. Iluntzean, euskal labeldun oilasko pintxoak (1,5 euro) probatzeko aukera egongo da

plazan. Toki berean, bertsio talde biren kontzertuekin errematatuko dute eguna: Basauriko eta Santurtziko kideek osatutako EZ3 taldea —20:30ean— eta Rock Brothers Duo bikotea —22:30ean— igoko dira plazako eszenatokira.

Urriko jaien barruan EZ3 eta Rock Brothers Duo taldeen kontzertuak ere izango dira, urriaren 26an

lekuan izango da, urriaren 27ko zapatuan, 12:00etatik 17:00etara. Udalak eta Ardosaltsanek antolatutako ekimenean askotariko ardoak dastatzeko aukera eskainiko dute eta, iaz hasitako bideari jarraituz, herriko tabernariak egindako pin-



Mallabiko Udalak eta Ardosaltsanek elkarlanean antolatzen dute Ardo Azoka.

EHUko adituen talde batek limitaduen gaineko ikerketa egingo du Otxandion

OTXANDIO • J.D.

Otxandio eta Aramaio arteko limitaduen arteko eztabaida ez da berria. Urte askoan izan da polemika iturri. Herri bien arteko mugan, nork bere jabetzakotzat hartzen dituen lursail batzuk daude. Hori horrela, ikerketa bat agintzea erabaki du Otxandioko Udalak, egia historikoa zein den argitzeko. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) talde bat limitaduen inguruko jatorria ikertzen ari da, udalagaz adostutako hitzarmen baten bidez. Dokumentu historikoetan edo bestelako iturrietan arakatuz, lur horien benetako historia zein den jakin gura dute. EHUko adituen taldea lanean dago dagoeneko eta euren ikerketa 2019. urte amaierarako bukatuko dute.



EH Bilduko zenbait alkate (Atxondo, Elorrio, Izurtza eta Mañaria), artxiboko irudian.

EH Bilduk alkategaiak aukeratzeko prozesua martxan ipini du bost herritan

Abadiñon, Durangon, Elorrion, Zaldibarren eta Zornotzan zerrendaburuak aukeratzeko prozesu irekia hasi da

DURANGO • M.O.

Abadiñon, Durangon, Elorrion, Zaldibarren eta Zornotzan martxan ipini dituzte EH Bilduren alkategaiak aukeratzeko prozesuak. Ondorioz, alderdiak informatu duenez, hautagaitzak aurkeztea ere posible dute hala gura dutenek, urriaren 28ra bitartean. Izan ere, prozesu irekia izango da. EH Bilduren erroldan izena emanda egotea beharrezkoa izango da hautagaia izateko zein prozesuan parte hartu

ahal izateko. Oraindik alderdian izena eman barik daudenek, *elkarrekin.ehbildu.eus* webgunean eta herrietako arduradunen bidez egin dezakete.

Alkategai bat baino gehiago egonez gero, eztabaida fasea gartuko dute azaroaren 9tik 22ra. Gero, azaroaren 23tik 25era bitartean egingo dute bozketa, telematikoki zein presentzialki.

Gainerako herrietan aurrerago egingo dute prozesua.



Durangoko jaietan photocall bat ipini zuten jendearen atxikimendua lortzeko.

Durangaldean jada ehunka lagunek eman dute izena Euskaraldirako

Elorrion hurrengo ekintzen berri eman dute prentsaurrekoan, eta Durangon Euskaraldiaren egoitza inauguratu dute; herritarrei parte hartzeko deia egin diete

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da Euskaraldia Euskal Herrian, euskararen erabilera ohituratan eragiteko. Dagoeneko ehunka dira Durangaldean izena eman dutenak paperean edo *euskaraldia.eus* webgunean, eta gehiago animatzeko ahalegina egingo dute. Ahobiziak –euskara hiztunak– edo Belarriprestak –entzuteko prest daudenak– izango dira partaideak.

Elorrion 350 lagun inskribatu direla azaldu zuten martitzenean, Euskaraldiko taldeak eta udalak eginiko prentsaurrekoan. Domeka

honetan bertan mahaia ipiniko dute plazan, 13:00etan, eta herriko hainbat gunetan buzoiak egongo dira. Bestalde, azaroaren 7an 19:00etan. 2+2 ez dira 4 ikuskizuna eskainiko dute, eta partaideei txapak banatuko dizkiete.

Durangon, egoitza

Durangon egoitza inauguratu zuten martitzenean. Hainbat herritar, eragileetako ordezkari eta EAJ, EH Bildu eta Herriaren Eskubideako zinegotziak batu zituen ekitaldiak. Badira 500 izena emandakoak, eta gainerakoek Artekal-

ko egoitza horretan eman ahalko dute. Urriko eguenetan 18:00etatik 20:30era. Azaroko eguenetan ordu berean eta azaroko zapatuetan 12:00etatik 14:30era.

Zornotzan, bihar Zelaie-tan egongo dira, 12:30ean eta 17:00etan. Zaldibarren, domeka eguerdian Zaldia plazara irtengo dira, eta 26 iluntzean Jose Antonio Agirre parkera.

Bestalde, Amankomunazgoak Euskaraldian parte hartzeko hamar formakuntza saio antolatu ditu Abadiñon, Berrizen, Elorrion, Iurretan eta Zaldibarren.



Elorrion talde argazkia atera zuten prentsaurrekoaren ostean.



Durangoko egoitzaren inaugurazioa, eguaztenean.



Berrizko euskaltegi eta eskolako jantokiko langileek ere babesa eman diote ekimenari.

20. urteurreneko ospakizunean murgilduko da Abadiñoko gaztetxea

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko gune autogestio-natuak hogeitaz bete dituela ospatzeko, aste osoko egitaraua prestatu du bertako asanbladak. Martitzenean hasiko da ospaki-

Martitzenean, hilak 23, abiatuko dute hamarkada biko ibilbidea ospatuko duen urteurren jaia

zuna eta domekara arte iraungo du; martitzenean, dantzariekin eta trakagaz ekingo diote urteurrenari. Eguenean, 'potepote'-an bilduko dira abadiñarrak, eta, 19:00etan, Eskupitajok grabatu duen bideokliparen emanaldia egongo da. Barikuan, The Cheap and Nasty Boys taldearen kontzertua egongo da. Zapatuan, hilak 27, egun osoko ospakizuna egingo dute gaztetxean. Besteak beste, bizikleta martxa, bazkaria eta kontzertuak egongo dira.

Kepa Junkera eta Sorginak, Durangaldeko azken sorginen askapena gogoratzeko ekitaldietan

1617an, Durangaldean sorginkeria egotearen teoria gezurtatu zuen Elizak, urteetako inkisizioaren ostean. Baina eskualdeko alkateek errepresioagaz jarraitzea erabaki zuten, 1618an azken emakumeak askatu zituzten arte

ABADIÑO • MARKEL ONAINDIA

Gerediaga elkarteak, Aldundiak eta udalek antolatzen dituzten Ondare Jardunaldien barruan (egitaraua Agenda atalean), sorgin ehi-za aztertzeo ekitaldiak prestatu dituzte gaurko, Gerediagako foru zelaian, 19:00etan. Izan ere, azken sorginak askatu zituztenetik 400 urte bete dira aurren. Lehenik, Belen Bengoetxea eta Jon Irazabal historialariek berbaldea emango dute,

Ekaineko Merinalde Egunean barkamena eskatu zuten gaur egungo udal agintariak

eta gero Kepa Junkera eta Sorginak taldearen kontzertua egongo da.

1617an, Durangaldean sorginkeria egotearen teoria gezurtatu zuen Elizak, urteetako inkisizioaren ostean -XV. mendean Durangoko 70 bat heretiko erre zituzten-.

Baina eskualdeko alkateek errepre-
sioagaz jarraitzea erabaki zuten,
1618an azken emakumeak Asto-
lako kartzelatik askatu zituzten
arte. Hori aintzat hartuta, ekaineko
Merinalde Egunean barkamena

eskatu zuten gaur egungo udal
agintariak.

Orain, irudi bat ipini dute Gere-
diagako zelaian. "Berdintasuna eta
pentsamendu askatasuna aldarri-
katzen dituen irudia" da, Arantzaz

Atutxa Gerediaga elkarteak kudea-
tzailearen esanetan. Ana Otadui
Batzar Nagusietako presidenteak
esan du emakume haiek ikusgarri
egitea dela ekintzen helburua, eu-
ren izenik ere ez baitakite.



Instituzioetako eta Gerediaga Elkarteko ordezkariak Gerediagako foru zelaian.

MALLABIKO URRIKO JAIAK 2018.10.27

URRIAK 20, zapatua

16:00 Klowna eta Jabetza tailerra,
Kontzejuzarrean

URRIAK 21, domeka

11:00 Duatloi txikia,
herri barruko zirkuituan

URRIAK 22, astelehena

16:30 Hitzaldia: Hezurren elikadura
Hizlaria: Maite Gonzalez osteopata

URRIAK 25, eguna

19:00 Gure Balioak saria 2018,
herriko frontoian
Omendua: Julen Zabaleta Barrenetxea
marrazkilaria

URRIAK 26, barikua

16:30 Tailerrak, umeentzat, eskolan

17:00 Buruhandiak eskolako frontoian

18:30 Txupinazoa udaletxeko balkoitik

19:00 Elizpeko pilota
txapelketaren finala

18:00-20:00 Dunbots txaranga
kaleak animatzen

20:00 Oilasko pintxoak plazan
Tiketak: 1,50 €

20:30-22:30 EZ3 taldea plazan

22:30 Rock Brothers Duo taldea
plazan

URRIAK 27, zapatua

9:00 Nesken frontenis txapelketa,
herriko frontoian

12:00-17:00 Mallabiko III. Arda Ferixie,
probalekuan (Sarrera: 7 €)
Pintxoak, salgai Mallabiko tabernariak eginda

Ondarearen Europako Jardunaldiak:
emakumeak, baserritik jauregira

Ametzaga (Arana) Jauregia eta Jasokunde eliza

Bisitaldi gidatua: 16:00etan gaztelan eta 18:00etan euskaraz.

Elkartu: Mallabiko elizan

Informazioa eta erreserbak: Tel.: 673005981

e-mail: ejardunaldiak@gmail.com

17:00-20:00 Txiki-txef umeentzat,
parkeko aterpe berrian

22:30 Rock kontzertua parkean
- THE VAN
- PLEASE (U2ren tributoa)
- GOVERNORS
- ZE ESATEK

URRIAK 28, domeka

16:30-17:30 Tor magoa, umeentzat,
probalekuan

17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean

1. saria: 120€ eta garaikurra
2. saria: 100€
3. saria: 80€
4. saria: 60€

Izena ematea: 10€ bikoteko

17:30 Txokolatada, probalekuan

Antolatzaileak:
Mallabiko Udala
Jai Batzordea





Ganboko ingurua berrurbanizatuko dute lan hauekin.

Ganboko ingurua berrantolatzeko lanak negu honetan zehar egin gura ditu Atxondoko Udalak

347.402 euroko aurrekontua izango dute lanek, eta helburua oinezkoen segurtasuna bermatzea izango da; horretarako, aparkalekuak toki egokian jarriko dituzte

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martxoan 2019ko aurrekontuak onartu zituztenean, inbertsioetan diru atalik handiena Ganboko inguruko lanen proiektuak izango zuela jakitera eman zuen Atxondoko Udalak. Hasiera batean, fase bitan egin gura zituzten lanak, baina, azkenean, fase bakar batean eta, posible bada, negu honetan egin gura dituztela adierazi zuen David Cobos alkateak. Bestalde, proiektu hori gauzatzeko, 347.402 euroko aurrekontua dutela jakitera eman zuen joan zen astean egindako bilkuran.

Gobernu taldeko zinegotzien botoekin kontratazio espedienteak onartu zen, eta, beraz, interesa duten enpresek 20 eguneko epea izango dute euren eskaintzak udal-letxean aurkezteko.

Segurtasuna bermatzea

Ganboko inguruan egingo dituzten lanen helburu nagusia oinez-

koen segurtasuna bermatzea da. Inguru horretan oinezkoen eta autoen joan-etorria handia da, eta, beraz, EH Bilduk beharrezkotzat

jarriko ditugu", dio alkateak. Horrez gain, Apatak herrigune txikia duela eta aparkaleku arazorik ez dela egoten adierazi du.



DAVID COBOS

“Gure helburu nagusia herritarren segurtasuna bermatzea da”

jotzen ditu lanok. “Gaur egun, autoak edozein lekutan eta edozelan aparkatuta egoten dira eta horrek arazoak sortu ditzake gidari eta oinezkoen artean. Horregatik, gure helburu nagusia herritarren segurtasuna bermatzea da”, adierazi du alkateak.

Hori horrela, autoentzat gune zehatzak jarri, eta aparkalekuak mugatuko dituzte. “Berez, aparkaleku kopurua gaur egungoaren antzekoa izango da, baina aparkaleku horiek modu eta toki aproposan

Bestalde, oinezkoen espazioak ugaritu egingo dira lanok amaitzean. Gainera, Ganboko inguruan gune berde gehiago eta herritarrek egoteko toki gehiago egongo dira.

Lan horiez gain, gune horretako ur sarea eta argiteria publikoa

Autoentzat gune zehatzak jarriko dituzte Ganbokan, eta aparkalekuak mugatuko dituzte

ere aldatuko dituzte. Lanok saneamendua hobetzeko aprobetxatu gura dituztela esan du Cobosek.

Ganboko inguruan gune berde gehiago eta herritarrek egoteko tokiak jarriko dituzte

Kale Irekiak prozesutik irtendako proposamena da Ganboko ingurua berrantolatzea

Kale irekiak prozesua

Apatako espazio publikoak zelan berrantolatu pentsatzeko, Kale Irekiak prozesua egin zuen 2016an Urak Bide taldeak, Atxondoko Udalen aginduz. Prozesuan zehar hainbat atxondarrek euren iritzia eman zuten, eta proposamen horiei jarraituz egingo dituzte aurren Ganboko inguruko lanak. Aurrez, berriz, udaletxe eta plaza inguruko lanak eta Euskalerrria kalekoak egin zituzten.

“Kale Irekiak prozesuan, inguru horretan oinezkoentzat gune gehiago eta aparkalekuak antolatzea eskatu zuten herritarrek. Beraz, udaletxe ingurua atondu ostean, hobekuntza hau egitea pentsatu dugu”, adierazi du David Cobosek.

Berrizko Udalak diru-laguntza emango du igogailuak jarri edo ordezkatzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak diru-laguntza emango du igogailuak jarri edo ordezkatzeko. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, 45.000 euro bideratuko dituzte laguntza horietarako.

Eskaera egiten den urtean bertan burututako lanetarako edo aurreko urtean amaitutako lanetarako emango ditu laguntzok udalak.

Bestalde, eskaerak Berrizko Udaleko bulegoetan entregatu beharko dira, 9:00etatik 14:00etara, otsailaren 28a baino lehen. Ebazpena, berriz, eskaera egiten den egunetik sei hilabeteko epean jakinaraziko diete interesdunei.

Lan munduari zuzendutako euskara ikastaroa antolatu du Zaldibarko Udalak

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Udalak euskarazko ikastaroa antolatu du, eta, besteak beste, pertsonen zaintzan, ostalaritzan eta merkataritzan euskaraz komunikatu ahal izateko gaitasunak landuko dituzte bertan. Ikastaroa azaroaren 5etik 21era izango da, 14:30-16:30 bitartean. Euskara ez dakiten zaldibartarrei zuzenduta dago eta doakoa izango da. Izen-ematea udaletxean edota udal liburutegian egin beharko da, datorren urriaren 29a baino lehenago.

Kirola kanpoan egiten duten herritarrei diru-laguntza emango die Garaiko Udalak

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Kirola herritik kanpora egiten duten garaitarrek diru-laguntza jaso ahalko dute, udalak onartutako ordenantzari esker. Herrian ez dauden zerbitzuak erabiltzearen izango da laguntza, inguruko herrietako kiroldegietan edo kirol ikastaroetan dabiltzanentzat.

Udal ordenantzaren arabera, abonua edo matrikularen %30 emango diete eskatzaileei, beti ere 100 eurotik pasatzen ez bada.

"Zornotzan herriko talde guztiek elkarregaz zerbait egin dezakegula erakustea da helburu nagusia"

Elkarte, talde eta ikastetxe askoren arteko elkarlanari esker, Zornotzan Euskal Jaia antolatuko dute zapatuan

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako 26 elkarte, ikastetxe eta eragilek indarrak batu dituzte Euskal Jaia antolatzeko. Bihar Zornotzan nagusituko den jai giroaz haratago, elkarlanaren balioa azpimarratu dute antolatzailleek. "Zornotzan talde guztiek elkarregaz zerbait antolatu dezakegula erakustea da helburu nagusia. Horrelakoe-tan sortu daitezkeen beldurrak alde batera utzi eta talde guztien artean, elkarregaz, horrelako ekimenak aurrera atera daitezkeela erakutsi gura genuen", adierazi du Udabarri dantza taldeko Igone Idigorasek.

Elkarteetara Euskal Jaia antolatzeko ideia proposatzera jo zute-nean, "baietza eta lanerako gogo", aurkitu zituztela gogoratu du Idigorasek. "Antolaketak lan handia eskatzen du, baina horrelako erantzuna jasotzea polita da benetan".

"Dudarik barik, eragile denon arteko elkarlan honek herria bera aberastu egiten du"

Dantza talde, bertso eskola, ikastetxe, txistulari, txalapartari, abesbatza, batukada, musikari, euskara talde eta herriko ekoizleak dira antolatzailleen zerrenda luzea osatzen dutenak. Euskara eta euskal kultura bere adierarik zabalenean hartutako taldea da, Larrea ikastetxeko Belen Beaskoetxearen esanetan. "Talde kultural ugari batzen badira,

ekimen borobilagoa sortzen da, ez hain norabide bakarrekoa. Horrek

"Talde kultural ugari batzen badira, ekimen borobilagoa sortzen da. Denok gara kultura"

hainbat esparru lantzeko aukera eskaintzen du. Denok osatzen dugu kultura. Ikastetxeetan ere kultura

adiera zabal horregaz zabaltzen dugu", adierazi du.

Maiatzetik hainbat batzar egin dituzte. Arlo askotako elkarteak mahai beraren bueltan batu dira eta horrek taldeen arteko kohe-sioan sakontzen lagundu duela uste du Beaskoetxeak. "Dudarik barik, denon arteko elkarlan honek herria bera aberastu egiten du".

Bost gune goizean

Goizean herri osora zabalduko dute jaia. Abesbatzak, trikitilariak eta

dantzariak bost gunetan banatuko dira, 11:30ean: Zelaieta parkean, Gernika eta Andra Mari plazetan, Pike eta Harrison plazetan, Kalbario eta Herriko plazetan, eta Ogenbarrena eta Venezia inguruetan. 13:00etan Zelaieta parkera abiatuko dira kalejiran, gune nagusira, eta hantxe bazkalduko dute. 230 bat lagun batuko dituen bazkarirako menua Iraunkor taldeak prestatu du. "Jatea ere kultura da, ohitura batzuetara lotuta dagoen kultura. Iraunkorreko ekoizle dezentek

parte hartu dute eta bertoko elika-gaiekin egindako bazkaria izango da", esan dute elkartekoek. Horrez gainera, erabiliko dituzten mahai-

Goizean bost gunetan banatuko dira eta eguerdian Zelaieta parkean batuko dira

tresna guztiak biodegradagarriak izango dira.

Arratsaldea bertsolariek, kantaldiek eta erromeriek girotuko dute (egitarau osoa 'Agenda' atalean). Herritarrei parte hartzeko eta euskal tradizioari lotutako jantziekin jantzita joateko deia egin diete antolatzailleek. Hain zuzen, domekara bitartean euskal jantzien inguruko erakusketa bat ikusi daiteke Zelaieta zentroan.



Euskal Jaia antolatzen dabilzan elkarte, talde eta ikastetxeetako ordezkariak martitzenean egin zuten azkeneko batzarra, Zelaieta zentroan.

Urriko azken asteburuko 'Historias a Bocados' telebista saioak Mañaria izango du protagonista

Hontza Museoko eta Arri Toki jatetxeko arduradunekin egon dira, besteak beste

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen astean, ETB 2 telebista katean eskaintzen duten *Historias a Bocados* saiorako grabaketak egin zituzten Mañarian. Joseba Arguiñanok aurkezten duen programan he-

Joan zen astean egin zituzten grabaketak; besteak beste, Jose Bilbao motozaleagaz

rriz herri ibiltzen dira bertako hainbat bizilagunen istorioak eza-gutara ematen, denen arteko lotu-neia gastronomia dutela. Mañaria-ren kasuan, Hontza Museoa bisitatu zuten Enrique Huertagaz, Arri Toki jatetxeko menua dastatu zuten Eufemi Alberdigaz eta Mañarian bizi den Jose Bilbao motozaleagaz ere egon ziren.

Programa zapatu-domeketan eskaintzen dute, 20:30ean, eta Mañarikoa urri amaierako egun batean eskainiko dute, telebista

Aurretik, Durangaldeko beste herri batzuetan izan ziren, Garain eta Zaldibarren, esaterako

saioko arduradunek jakitera eman dutenez. Oraingoa, baina, ez da Durangaldera datozen lehenengo aldia. Aurretik, Garain eta Zaldibarren egon ziren eta herri horietako hainbat bizilagunen istorioak kontatu zituzten.



Hontza Museoko Enrique Huerta eta saioko aurkezle Joseba Arguiñano, Mañarian.

2019rako zergak eta tasak %1 igotzea onartu zuten joan zen astean Elorrión

ELORRIO • M.ZUAZUBISKAR

Joan zen asteko osoko bilkuran, 2019rako zergak eta tasak %1 igotzea onartu zuten. Bestalde, herriko ostalaritza eta merkataritza guneeetan egiten diren lanetan hobariak egongo direla jakitera eman zuten. EAJk gobernu taldeak aurkeztutako proposamenaren kontra bozkatu zuten eta Herriaren Eskubidea abstenitu egin zen.

Herriko ostalaritza eta merkataritza guneeetan egiten diren lanetarako, hobariak emango dituzte

Bilkuraren ostean, EAJko kideek prentsurrekoa eman zuten eta gobernu taldearen "gardentasun falta" salatu zuten. "EH Bilduk politikarien eta herritarren partaidetzarik barik gobernatzen du", adierazi zuen Joseba Mujikak.

EAJko kideen adierazpenei erantzunez, ordenantza fiskalak 2019rako aurrekontuak lantzeko abiapuntua izango direla jakitera eman zuen EH Bilduk, eta ordenantza fiskalen prozesuan EAJ gobernu taldearen "aurka" ibili dela salatu zuen.

Cristina Morak irabazi du jaietako argazki lehiaketa

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzako argazki lehiaketak baditu irabazleak. Kultura batzordeak zein herritarrek osatutako epaimahaiaren ustez, Cristina Mora izurtzarrarena

Hirugarren saria ere berak irabazi du; bigarren argazkirik onena Rebeca Barandikarena izan da

izan da argazkirik onena. Lehenengo sariagaz 100 euro irabazi ditu. Hirugarren saria ere berarentzat izan da. Bigarren tokian Rebeca Barandika izurtzarra geratu da eta 75 euro eskuratu ditu. Lehiaketara aurkeztutako argazkiekin erakusketa bat antolatuko dute abenduaren 6an, gazta, ardo eta ogi azokaren barruan. Jubilatuen lokalean izango da.

Elorrioko eta Abadiñoko landa eremuetan bizi diren emakumeen egoera aztertzen dabilta

Herri bietan landa eremuak pisu handia duela konturatu dira Elorrioko eta Abadiñoko udaletan, eta, beraz, emakumeen egoeraren diagnosi bat egitea beharrezkotzat jo dute



Ezkerretik hasita, Marije Apodaka, Iñaki Rekalde, Idoia Buruaga, Aida de la Calle eta Leire Milikua.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Otsailaz geroztik, Elorrioko eta Abadiñoko landa eremuko emakumeen egoera aztertzen dabil Leire Milikua abadiñarra, udal bien babesagaz. Joan zen astean emandako prentsurrekoan Idoia Buruaga Elorrioko alkateak jakitera eman zuenez, herri bietan landa eremuak pisu handia dauka, eta, beraz, azterketa hori egitea "beharrezko" ikusi dute. Bestalde, Abadiñoko landa eremuko ema-

kumeek biztanleriaren %6 osatzen dutela jakitera eman zuen Iñaki Rekalde Abadiñoko zinegotziak.

Abendurako prest izatea aurreikusten duten diagnosiari esker,

Diagnosia abendurako prest izatea aurreikusten dutela jakitera eman zuten prentsurrekoan

18 emakumeri elkarrizketak egin eta gero, emakumeekin topaketak egin dituzte

udal biek emakume horiek zer gura duten jakingo dutela eta Elorriok eta Abadiñok emakumeen egoeraren argazkia izango dutela esan zuen Milikuak. "Landa eremuko emakumeen gaur egungo egoeraren argazki hori izatea beharrezko

ikusten dugu", adierazi du Idoia Buruagak.

Diagnosia hiru fasetan osatzen dabilta. Marko teorikoa osatu eta 18 emakumeri elkarrizketa egin ostean, landa eremuko emakumeen topaketak egingo dituzte datozen asteetan. "Saio kolektibo hauen asmoa emakumeekin elkarrizketetan irtendako bizpahiru gai jorratzea eta topaketarako espazioak sortzea izango da", esan zuen Milikuak.

Lehenengo saioa urriaren 15ean egin zuten, astelehenean, Abadiñoko Mendiola auzoko Errekaxo auzo elkartearen. Bertan 12 bat emakume batu ziren eta hainbat gai jorratu zituzten: auzoetako mugikortasuna, zahartzea, transmisioaren inguruko jakintzak, auzoetako elkarguneak... Milikuaren hitzetan, topaketaren balorazioa "oso positiboa" izan zen. "Profil oso ezberdineko emakumeak batu ziren arren, gauza askotan antzekotasunak dituztela", esan du tailerreko dinamizatzaileak.

Elorrión, berriz, urriaren 17an batu ziren, eguaztenean, Gazeta auzoko Lagunarte kofradian.

Azaroan, berriz, parte-hartzaileen artean emaitzen balorazio saioak egingo dituzte. Ondorioak azaroaren 5ean aurkeztuko dituzte Mendiola auzoko Errekaxo auzo elkartearen, 18:00etan, eta azaroaren 7an Gazeta auzoko Lagunarte kofradian.

Iurretan mural bat margotu dute, emakumeek urteetan eta herriko arlo guztietan egindako ekarpena aitortzeko

Iurretako Udalak eskatuta, 'Gure Emakumeak' murala margotu du ARTgia kolektiboak Dantzari plazako horma batean

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Kolore berriz jantzi dute Iurretako Dantzari plazako horma grisa. Historian zehar, eta genero ikuspuntu batetik, herriaren iragana

ko neska-mutilen laguntza izan zuten. Izan ere, sanmigel jaien barruan hasitako proiektua da hau eta "umeen parte hartzea, euskara eta berdintasuna uztartzea" du helburu. Baita kaleko hormen egoera "hobetzea" ere aldi berean.

Hala azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak. "Muralagaz, emakumeen presentzia hartu gura izan dugu aintzat, Iurretako gizartearen esparru guztietan eta hainbat sasoitan egin duten ekarpena", gaineratu du udal arduradun nagusiak.

Izandako bilakaeraren isla

Historian zehar emakumearen bilakaera Iurretan nolakoa izan den erakusten du muralak. Emakumeak gaur egunera arte egindako lana erakusten du: irakaskuntzan, zaintza eta nekazaritza lanetan...

"Umeen parte hartzea, euskara eta berdintasuna uztartzea" ditu helburu Dantzari plazako muralak

eta oraina erakutsi gura dituen Gure Emakumeak murala margotu du Irantz Lekue gasteiztarrek zuzentzen duen ARTgia kolektiboak, udalaren enkarguz.

Urriaren 5ean eman zituzten lehenengo pintzeladak, eta, horretarako, Maiztegi herri eskola-



San Migel jaien barruan hasitako proiektua da mural hau.



1974 bueltako belanaldia lurretako plazan.

Hareek denporak!

Goiuria ikastola sortu zenetik 50 urte bete dira

1968ko urrian Goiuria ikastola sortu zuten Iurretan. Gerediaga elkartearen eta Julen Kaltzadaren babesa eduki zuten, Jon Irazabalek kontatzen duenez. Julian Berriozabalgoitiak utzitako lokal batean hasi zuten ibilbidea.

Lehen andereñoa Ana Mari Berriozabalgoitia izan zen, eta Maribi Jaio eta Montse Sarriguarte ere batu ziren gerora. 1971n pisu bat erosi zuten Gerreño anaien laguntzagaz, eta,

txiki geratuta, 1973n lokal bat, egun Goiuria kulturgunea dena. Mila Madariaga izan zen lehen andereño tituluduna. 1981era arteko bidean, Mariasun Onandia eta Kristina Urrutia ere izan ziren irakasle. Urte hartan, sare publikoaren alde egin eta Maiztegigaz batu ziren gurasoak.

Gero, ikastolako lokala herriko elkarleen bilgune izan zen urte luzez, eta 2002tik udalak gestionatzen du. **M.O.**

Sei hankako mahaia

Julian
Rios Santiago
SQ-2D



Gauean lorik egin gabe

San Fausto jaiak atseginak dira lagunekin eta senideekin partekatze. Aspaldi ikusi gabekoekin berriro elkartzeko, gozatze-ko eta ospatzeko egunak dira.

Baina, egunotan, gertaera desatseginak ere izaten dira. Lagun batek esan zidan, bere etxeko txikiena dela-eta larrialdi zerbitzuetara joan behar izan zuela autoa hartuta San Faustoetako gau batez. Bere hitzek estualdi nabarmena igaro zuela islatzen zuten. Autoa ordu txikietan hartu, eta Gurutzetako Ospitalerainoko bide amaigabea egin behar izan zuen, 40 kilometro baino gehiago. Eta, dena, Durangon 24 orduko pediatria zerbitzurik ez dagoelako, eta gure erreferentziazko ospitalean, Galdakakoan, pediatria zerbitzurik ez dagoelako.

Gertaera amorragarriak dira, eskualdean 24 orduko pediatria zerbitzurik ez izatera une estu eta larriak igaroarazten gaituztelako. Gure eskualdea berriro ere zigortuta eta ezinbesteko zerbitzurik gabe.

Osasun Sailaren eta hango buruen enpatia falta izugarria da, ahaleginik txikiena ere ez baitute egin gure eskualdeko gurasoen lekuan jartzeko. Ordubeteko bidaia da, eta itxaronaldia ez luzatzeko, ordaindu beharreko autobidea hartu behar da.

Egoera tamalgarri hau dela-eta, oso denbora gutxian 5.000 sinadura baino gehiago bildu dira 24 orduko zerbitzua eskatzeko. Datu garrantzitsua, baina 30.000 durangarren etorkizuna zehaztu nahi duen "120 aukeratuen taldeak" jaso ez duena Durangon.

Gure txikien bizi-kalitatea eta arreta betetzen direnean baino ez da izango kalitatezkoa gure herria, aurrerapenezkoa, ongizatezkoa. Txikien osasunarekin ez dago jolasean ibiltzerik.

**Erredakzioan itzulia*

Durungaldea asteen

Kurutziagaren 50. urteurrena ospatzeko, egun osoko egitaraua azaroaren 10ean

Durango I 50. urteurrena ospatzeko, *Bizitzeko Hezi* lemapean egun osoko egitaraua antolatu dute azaroaren 10erako. 10:30ean puzgarriak egongo dira, eta 12:00etan *Ane eta Piratekin Parrandan* emanaldia. 14:30ean bazkaria egongo da. Ostean, urteurreneko ekitaldia, eta jaia borobiltzeko, Luhartz taldeagaz erromeria. Bazkarirako txartelak urriaren 26ra arte erosi daitezke ikastolan edo plateruenasarrerak.eu webgunean.

Ur hornidura sarea Elorrioko Berrio auzora eramateko lanak hasi dituzte

Elorrio I Landa eremuko auzo guztietara ur hornidura sarea eramateko helburuagaz lanean dabilta Elorrioren. Lanak egiteko aurrekontua 139.890,52 eurokoa izango da, eta hurrengo urte hasierarako amaituta egotea aurreikusten du udalak. Etorkizunean Aldapera eta Gazetara ura eramateko baliatuko dituzte lan hauek. Berrio auzoko lanez gainera, Urkizuaran kalean ere lanean dabilta, bertako ur hornidura eta estolderia sareak hobetzeko.

Durangoko institutuko ikasleak Errumaniara doaz bidaian

Durango I Elkartruke bati esker, Errumaniako Roman hirian egongo dira urriaren 20ra bitartean. Bidaia ez da oporraldia soilik izango, izan ere, Errumaniako estatua sortu zeneko mendeurrena ospatzen ari dira. Hori dela eta, janzkera tradizionalari buruzko lanketa egitea eskatu diete ikasleei. Euskara batuaren 50. urtemugaren harira, horri buruz ere jardungo dira.



14.000 lagunetik gora bildu ditu Mangamorek bere hamabigarren edizioan

Zornotza I Hiru egunean zehar, Japoniako kulturagaz zerikusia duten 100 jarduera baino gehiago egin dira Zornotzan Mangamore jaialdiaren baitan. Antolatzaileen esanetan, urriaren 12koa eta 13koa izan ziren jardunaldirik arrakastatsuenak. Hala ere, ekitaldirik garrantzitsuenak Luna Dangelis eta Deiak youtuberren berbaldia eta Dance lehiaketa izan ziren. Lehenbizikoak 1.200 lagun bildu zituen, eta bigarrenak, 1.400.

Aurtengo edizioko nobedade nagusietako bat gastronomia-gunea izan da. Beste behin, balorazio positiboa egin dute antolatzaileek.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarre edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

HIERRROS IEZU S.A.

burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

Doinu eta errimen jaialdia

BERTSOLARIAK
DURANGO : Urriak 19

Bertsoekin goatzeko aukera eskainiko dute sanfaustoek

Goi mailako bertsolariek osatutako taldea igoko da, gaur, Durangoko San Agustin kulturguneko

oholtzara. Doinu eta errimekin goatzeko aukera izango dute bertsozaleek, 22:30ean hasita.

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Igor Elortza, Sustrai Colina, Amaia Agirre eta Alaia Martin arituko dira bertsoan. Iban Zaldia izango da gai jartzailea. Arte eta Historia Museoan hartu daitezke zenbakidun gonbidapenak.



'Axut!' taularatuko du Zazpi senideko antzerki taldeak Durangon

ANTZERKIA | Aktore bi. Anaia bi. Eta zazpi istorio antzerkira ekarriak. 'Axut!' artedrama taularatuko du Zazpi senideko antzerki taldeak egunean, urriaren

25ean, 19:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean.

Ander Lipusek zuzendutako obra honek neba-arreben harremanak ditu hizpide, zazpi idaz-

leren testuek lagunduta. Idazle horien artean Unai Iturriaga durangarra dago. Igor Elortzak aholkulari moduan jardun du.

Anaitasunarena txikitatik eraikitako labirintoa da, ihesbiderik gabekoa, lotura definitiboa. Odolekoak zein biziak eskainitakoak, senideak norbanakoa osatzen du. Baina, nola aritu anaia, ahizpa, neba edo arreba ebatsi digutenean?

Urriaren 19an

DURANGO jaiak
'San Fausto jaiak'.
VII. Padel txapelketako finalaurrekoak, 17:00etan, Landako kiroldegian.
Tortilla txapelketa, 18:00etan, Txosnagunean.
"Danok dantzara"
L'atelieregaz, 18:30ean, Ezkurdin.
Dj Itsua, 18:30ean, Txosnagunean.
Batukandragaz kalejira, 19:30ean, Alde Zaharrean.
Khuzayma elkartearen dantza erakustaldia, 20:00etan, Ezkurdin.
Kontzertua Eir Band taldeagaz, 21:00etan, Goienkalean.
Chicas de La Habana, 22:00etan, Andra Marian.
Discípulos de Dionisos, Los Cosméticos eta The Riff Truckers, 22:00etan, Txosnagunean.
Bertso saioa, 22:30ean, San Agustinen.

ELORRIO urtemuga

'Arriolak 30 urte', 19:00etan:
'Pool' dantza ikuskizuna (Amaia Elizaran & Xabier Zeberio),
'Behobia / SS - Txaloka ero moduan' mikroantzerkia (Libe Mendizabal & Tessa Andonegi),
'Markinatik natorren artista bat naiz ni' mikroantzerkia (Ander Lipus),
'Taupadak' ikuskizuna (Kukai & Logela)

Urriaren 20an

DURANGO jaiak
'San Fausto jaiak'.
VII. Padel txapelketako azken-aurrekoak, 09:00etan, Landako kiroldegian.
Xake txapelketa, 10:30ean, Ezkurdin.
Nekazaritza azoka, 11:00etan, Ezkurdin.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Perretxiko zaleek hitzordu bana dute Abadiñon eta Otxandion

MIKOLOGIA | Geredixa elkar-tearen XXVII. Perretxiko Era-kusketa egongo da, domekan, Abadiñoko Errota kultur etxean. Bezperan batu eta sailkatutako perretxikoak erakutsiko dituzte. Otxandion ere zapatuan irtengo dira perretxiko bila, bertako mikologia taldeak deituta. Kultur etxean sailkatuko dituzte batuta-koak, 13:00etan. Domekan, era-kusketa egongo da udaletxeko ar-kupean, 12:00etatik 15:00etara.



Umeen mozorro tailerra, 11:00etan, Andra Marian.
Kalejirak, 12:00etan.
Tortilla txapelketa, 12:00etan, Landakon.
Haurren mozorro desfilea, 13:00etan, Andra Marian.
Akrobaziak, 17:00etan, Ezkurdin.
Taldeakako mozorro desfilea, 18:30ean, Madalenatik.
Zezen suzkoa, 21:00etan, Ezkurdin.
Ghanako txaranga, 21:30ean, Alde Zaharrean.
Aneguria, Ezetaerre eta Kulto Kultibo, 22:00etan, Txosnagunean.
Fito taldeari tributua, 22:30ean, Andra Marian.
Vulcano orkestra, 23:00etan, Ezkurdin.

MALLABIA jaiak
Klowna eta jabekuntza tailerra, 16:00ean, Kontzejuzarrean.

ABADIÑO antzerkia
‘Creando nubes’
antzezlan, 19:30ean, Errotan.

ZORNOTZA euskal jaia
‘Zaku bete ipuin’, 12:00etan.
Kalejira, 13:00etan.
Zaparrada batukada, 13:30ean.
Kittu, 11:30ean.
Herri bazkaria, 15:00etan.
Bertsolariak, 16:30ean.
Kantaldia Eneko eta Markelen eskutik, 17:00etan.
Inunen kontzertua, 18:30ean.
Erdizka Lauetan erromeria, 19:00etan.

ELORRIO kirola
‘Kirol Eguna, egun osoan.

ELORRIO hitzaldia
Juan Manuel Cerrato-ren hitzaldia: ‘Iniciación a la filatelia temática’, 11:00etan, Iturrin.

Urriaren 21ean

DURANGO jaiak
‘San Fausto jaiak’.
Nesken San Fausto VII. Padel txapelketako finala, 10:00etan, Landako kiroldegian.
Mutilen San Fausto VII. Padel txapelketako finala, 11:00etan, Landako kiroldegian.
Haur parkea, 11:00etan, Ezkurdin.
XXXV. San Fausto zesta-punta txapelketako finalak, 12:00etan, Ezkurdi Jai Alain.
Kalejira txistulariekin, 12:00etan.
Kalejira Durangoko Orfeoia, 12:00etan, Alde Zaharretik.
Poniak eta zaldiak, 11:00etan, Landako Gunean.
Arku-tiroa, 11:00etan, Landako Gunean.
Patxin eta Potxin, 12:00etan, Landako Gunean.
Herri kirolak, 12:30ean, Ezkurdin.

Bilbainadak, 13:00etan, Andra Marian.
3ZP4!, 17:30ean, Ezkurdin.
Arantza eta Pantxo, 18:00etan, Andra Marian.
Tor magoa, 18:00etan, Txosnagunean.
Txokolatada, 19:00etan, Txosnagunean.
Patxikotxuri agurra, 19:30ean, udaletxetik.
Su artifizialak jaiak amaitzeko, 20:00etan, tren kotxetegi zaharretan.
Pantxikeri agurra, 20:00etan, Txosnagunean.

MAÑARIA jaiak
‘Santa Ursula jaiak’
Meza, 13:00etan.
Bazkaria, 14:00etan, pilotalekuan.
Mariatxiak, 15:30ean, pilotalekuan.
Briska eta tute txapelketa, 16:30ean.

MALLABIA jaiak
Duatloi txikia, 11:00etan, herri barruan.



Zine-ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Oreina**
barikua 19: 22:00
domeka 21: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **La Buena Esposa**
barikua 19: 19:30/22:00
zapateria 20: 20:30/22:30
domeka 21: 19:15/21:30
astelehena 22: 18:30/21:00
martitzena 23: 20:00
eguaztena 24: 20:00
• **Cold War**
barikua 19: 19:30/22:00
zapateria 20: 20:30
domeka 21: 19:15/21:30
astelehena 22: 18:30/21:00
martitzena 23: 20:00
eguaztena 24: 20:00
• **Ola de Crímenes**
barikua 19: 19:30
zapateria 20: 18:30/22:30
domeka 21: 19:15
astelehena 22: 18:30
martitzena 23: 20:00
• **Venom**
barikua 19: 22:00
zapateria 20: 19:30/22:30
domeka 21: 21:30
astelehena 22: 21:00
• **Smallfoot (Euskaraz)**
zapateria 20: 16:30/18:30
domeka 21: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Siempre Juntos (Benzinho)**
zapateria 20: 22:00
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:00
• **Itsasontziak Erreska-tean**
domeka 21: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **La Sombra de la Ley**
barikua 19: 20:15
zapateria 20: 19:30/22:00
astelehena 22: 20:15



“Gazteak gara, eta hobetzekotan, orain hobetuko dugu”

Eskualdeko zazpi bertsolari dabilta Bizkaiko txapela jartzeko lehian; tartean, Aitor Bizkarra eta Txaber Altube abadiñarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarra

txapelketa ez dela disfrutatzeneko lekua, baina bueno. Behintzat, arikeria bat gehiago egiteko aukera dago.

A. B.: Udabarriko fasea nahiko bitxia da. Bertso gutxi abesten dituzu, eta horrek presio puntu bat gehitzen dio. Botatzen dituzun bertso gutxietan asmatzera derrigortuta zaude. Presio apur batez bizi dut nik orain, izan ere, Txaber eta biok finalurrekoetara iritsi ginen orain urte bi, eta gutxienez hori berdintzeko helburua daukagu.

T. A.: Hobetu dezakegula uste dugu. Gazteak gara, eta hobetzekotan, orain hobetuko dugu. Finalerdietara heldu eta gustura geratzeko moduko saio bat egitea da nire erronka.

Eskolartekoetan txapelak lortutakoak zarete hirurak. Fokoa zuengan dagoela igartzen duzue? Presiorik?

T. A.: Orain dela urte batzuk egin genuenagatik baino, jendeak orain ikusten duenagatik dela esango nuke. Ikusten du aktibo gaudela, hainbat saiotan maila ona ematen dugula, eta jendea gudan fijaszen da. Saiotetan ere igartzen da, publikoaren erantzunean.

A. B.: Ez dakit sona deitu ahal zaion, baina azkenaldian jendea gudan gehiago fijaszen hasi da. Berba gehiago egin da guri buruz, udabarrikoan geure saioak irabazi ditugulako.

G. P.: Guk ere sartzen diegu presioa (barreak).

“**Txaber Altube: Euskal rapa leuntzeko dagoen diamante bat da oraindik, baina ari da bere bidea egiten**”

Elkarregaz zabiltzate txapelketa prestatzen. Zama arintzen laguntzen du?

G. P.: Lagungarria baino gehiago, beharrezkoa dela uste dut bertsotan egiteko lagun talde bat edukitzea.

A. B.: Bakarrik nagoenean ere, txapelketa garaian buruan ditut bertsoak, eta aurten bereziki gogotsu gabiltzala uste dut, obsesio puntu batek jota ere, esango nuke.

T. A.: Elkar kutsatzen ere ari gara horrela, onerako zein txarrerako. Bertso eskolan batera, udan eta parrandan ere gure artean libreko hainbat saio egin ditugu. Orain beldurra ere kutsatu diogu bata besteari.

G. P.: Niretzat oso garrantzitsua izan da biltzen hastea. Askok ikasi dut eta lagun hobeak egin gara.

Nola definituko zenukete bata bestea?

T. A.: Bizka *perlitas* bat da. Bakarkakoan, sekulako aleak ateratzen ditu.

G. P.: Txaber oso ona da publikoagaz kontaktatzen.

A. B.: Eta etorri oso ona du. Gorka oraindik leuntzeko dagoen diamante bat da, ez du oraindik hainbeste garatu bere *bertsonalitatea* (barreak).

Nortzuk dira zuen ereduak?

A. B.: Maialen Lujanbio.

T. A.: Bertsotan ondo egin nahi duen edonorena da Lujanbio. Eta Unai Iturrriagak eta abarrek ere asko irakatsi digute. Bertso eskola gozamina izan da orokorrean, bertsoez aparte ikasteko ere.

Hip hopa bogan dagoen garaiotan, bertsolaritzan eraginik baduela uste duzue?

A. B.: Oraingoan, alderantziz dela uste dut, izan ere, euskal raperoek bertsoekin dute harremana. Hala ere, eragin dezake, formatu berriak edo mistoak sortzen edo.

T. A.: Euskal rapa leuntzeko dagoen diamante bat da oraindik, baina apurka-apurka ari da bere bidea egiten.

G. P.: Hor daude Juntxo Glaukoma eta Odei Barroso, adibidez.

BERTSOLARITZA • ARITZ MALDONADO

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan Durangaldeko ordezkariak gazteenak dira Aitor Bizkarra (Abadiño, 1996), Txaber Altube (Abadiño, 1998) eta Gorka Pagonabarraga (Durango, 2000). Elkarregaz dabilta prestatzen Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Altubek urriaren 21ean du saioa, Zornotzan.

Urduri, Txaber?

Txaber Altube: Momentua hurbiltzen ari dela, urduriago jartzen ari naiz. Bertsotan gustura eta sentsazio onekin nabil, baina pixka bat urduritzen hasita ere banago.

Eta zuek? Aste bi barru Plentzian duzue saioa.

Aitor Bizkarra: Ni kokilduta nago, nire buruari esaten diot ez arduratzeko, ez diola axola, baina neuk ere ez dut sinesten.

Gorka, zuk lehenbiziko aldia duzu udazkeneko fasean. Nola daramazu txapelketa?

Gorka Pagonabarraga: Ni gustura geratu nintzen udaberriko faseagaz. Intentzio handirik barik apuntatu nintzen, probatzeko asmoz, eta ondo irten zen. Udazkenekoarako, egiten dudana gustura geratzea baino ez dut eskatzen.

Pozik orain arteko ibilbideagaz?

T. A.: Bai, aurrera egin dugu, nahiko nabarmen, baina oraingoan gehiago disfrutatzea gura nuke. Badakit

“

A. Bizkarra:
“**Udabarrikoan, botatzen duzun bertso gutxietan asmatzera derrigortuta zaude**”

Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea finalurrekoetan sartuko dira lehian

BERTSOLARITZA • A. M.

Gorka Pagonabarraga, Txaber Altube eta Aitor Bizkarra bertsolariez gainera, Durangaldeko beste lau lagunek abestuko dute txapelketan. Orain dela urte biko txapelketako finalera iritsi ostean, Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea finalurrekoetan sartuko dira lehian. Amurizak etxean abestuko du, Berrizko pilotalekuan, azaroaren 18an. Ugartetxeak, oster, Igorreko

kiroldegian ekingo dio txapelketari. Bizkaiko txapela janzteko lehiatuko dira.

Saio bi

Kanporaketa bi jokatu dira dagoeneko. Lehenbizikoan, Gernikan, Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak abestu zuen. 439 puntu lortu zituen. Joan den astean, Eneko Abasolo ‘Abarkas’-ek abestu zuen Santurtzin, eta 460 puntu lortu zituen.

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Zalao Fuertes argazkilaria zineman lehenbiziko pausoak ematen ari da Fermin Muguruza artistaren esku-tik. Donostiako Zinemaldian estreina-tu ostean, Muguruzaren 'Black is Beltza' zinema-areto komertziale-tan ibilbidea egiten ari da joan den asteaz geroztik. Nobela grafikotik film animatura egin du jauzi artista irundarraren azken sorkuntzak, eta bertan parte hartu du Fuertesek.

Zelan joan da pelikularen grabake-ta prozezua?

Black is Beltzaren kasuan, gida ahotsak grabatu ditut, aktoreek horren gainean aktuatu eta grabatzeko alde batetik, eta animazioak egin ahal izateko bestetik. Nik Esperanzita aktore mexi-karraren ahots gida egin nuen. Egun bateko grabazioa izan zen, oso dibertigarria. Horrez gainera, argazki eta bideo batzuk egin nituen makin of-erako eta peliku-la amaieran dagoen pertsonaien eta aktoreen aurkezpenarako.

Ez da lehenbiziko aldia Muguruza-gaz lan egin duzuna.

Zuloaken ere parte hartu nuen. Hori izan zen zinemagaz izan dudan lehenbiziko hartu-eman-a langile moduan. Bietan oso gus-tura aritu naiz, eta jende interes-garri asko ezagutu dut. Itzelezko aukera izan da niretzat.

Nolakoa da Ferminen gaz lan egitea?

Fermin pertsona ikaragarria da. Zerbait buruan sartzen zaio-nean, lortu artean jo eta ke dabil horregaz. Pentsa, Black is Beltzak hamar urte behar izan ditu ideia eduki zuenetik gauzatu den arte. Pelikulagaz bakarrik, ia urte eta

“Fermin Muguruzagaz lan egitea luxua da, asko ikasten delako”

Fermin Muguruzaren azken sorkuntzan parte hartu du Zalao Fuertes argazkilaria



Zalao Fuertes eta Fermin Muguruza, grabaketan.

erdi egon da beharrean, beraz gain inork ez zuelako sinisten proiektuan. Bestalde, beragaz lan egitea luxua da, asko ikasten delako. Mugitzen daki, jende pilo bat ezagutzen du eta oso pertsona argia eta langilea da. Estudioan, adibidez, zerbait berak gura bezala irten arte, ez ginen gelditzen. Oso zorrotza da, eta langile fina. Eta jende oso onagaz inguratzen da.

Nolako harrera izaten ari da zinema aretoetan?

Zinemaldiko aurkezpenean talde osoa egon ginen eta oso polita izan zen. Orokorrean, harrera nahiko ona edukitzen ari da. Pelikula oso indartsua da, informazio asko gordetzen duena. Oso ohikoa da hori Ferminen lanetan. Gainera, lantaldea hainbat lekutara joan da pelikula aurkeztera, eta ziur zine jaialdietan ere mugituko dutela.

Baduzu beste proiekturik esku ar-tean?

Pare bat liburutan nabil beharrean. Astiro, baina ziur. Proiektuetako bat Zuganako Bidea da. Kartzelara egiten ditudan bidaiei buruzkoa da. Ez da presoari eta bere senti-menduei buruzkoa; kanpotik ikus-ten dena islatzen saiatzen naiz. Bestalde, Arrate Mardaras idazleagaz beste proiektu batean lan egiten ari naiz. Geldi, inoiz ere ez.

Plateruenak 14. urteurrena ospatuko du, urriaren 28an

URTEURRENA • A.M.

Plateruena kulturgune herritarra bere 14. urtebetetzera heldu da eta efemeride hori ospakizunerako aprobetxatu gura dute. Horretarako, ekitaldi berezia ospatuko dute datorren urriaren 28an. Plateru ikuskizun berezia egongo da ikusgai, 19:00etan. Aritz Lasargurenek espreski sortu du ikuskizuna ur-

teurren jairako; Erika Lagoma eta Matxalen Erzilla dira urteurren ekitaldiko zuzendariak. Hainbat dantzari, musikari eta bertsolarik Plateruenaren izenaren jatorriari buruzko istorioa kontatuko dute. 2004ko urriaren 28an zabaldu zuten ateak Plateruenak. Hamalau urteotako dedikazioa eskertzeko aukera izango da hau.



Ospakizun jaia urriaren 28an izango da.

Geure Durangaldea

Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria



Epelaburtasun ilustratua

Institutuko filosofia kla-seetan ikasi nuen kritikoak izan behar dugula jasotzen ditugun aholku guztiekin, imajinarioan barneratuta baditugu batez ere. Nahi ga-be, diskurtso hegemonikoaren parte izatera pasatzen gara, marketinak sortutako leloak erreboluzio faltsu ba-ten izenean mantra modura errepikatuz.

Estrategia horretan, orai-na erretzeko mezuak ez dira falta inguruan: biharra existituko ez balitz bezala bizitzeko, gure buruari li-miterik ez jartzeko... denak Live fast, die young kulturaren baitan; alderdi politikoek hurrengo hauteskundeez haratago pentsatzeko duten ohitura ezaren parean.

Ez dugu hausnartu, ordea (hori baita azkar bizitzea-ren ordaina), filosofia hura dela zibilizazio gisa amilde-gira gidatzen gaituena, pla-neta infinitu eta lau batean bizi garelakoan. Lurraren emankortasuna eta energia erreserbak agortu ditugu hazkunde ekonomiko mu-gagabea ohoratuz. Sinpleta-suna eta kooperazioa, aldiz, giza garapen duin baterako alternatibetatik aspaldi baz-tertu genituen.

Zoritxarrez gure gozame-nerako, edo ohitu gaituzten gozamen iragankorrerako behintzat, biharra existi-tzen da eta arduraz eraiki beharra dago gure akatsak ondorengo belaunaldiek pairatu ez ditzaten: 30 urte barru, Durangon, berta-ko airea oraindik arnastea baldin badago, dorreak eta parkinak bota behar izango ditugu, herri-ortuak, ber-deguneak eta ekonomia lo-kala sustatzeko, zementua, dirua bezala, ezin baita jan.

www.plateruena.eus



PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net



Azaroak 23 · 21:30ean

**PUB
QUIZ**

Zazpi senideko

Axut!

Urriak 25, eguna
19:00etan

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGORREKO URBIA



Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus



Hiru hamarkadako ibilbidea ospatzeko, jaialdi berezia prestatu du barikurako Arriola aretoak

Dantzak, musika, antzerkia... denetarik eskaintza kulturala egon da hogeita hamar urteotan Elorrioko kulturgunean



2007an estreinatu zen 'Taupadak' ikuskizuna

ARRIOLA • A.M.

Kulturgunearen ibilbidea ospatzeko, eskaintza berezia eskainiko dute Arriolan barikuan, hilak 19. Adibidez, Logelaren eta Kukairen lehenbiziko elkarlana izandako *Taupadak* ikuskizuna berreskuratu-ko dute hitzordu berezi honetarako.

Musika klasikoa, elektronikoa eta dantza nahasten dituen ikuskizun honek dantzari batek emanaldian zehar dituen sentipenak biltzen ditu. Ander Lipus ere arituko da, etxean bezala, *Markinatik Natorren Artista Bat Naiz Ni* mikroantzerkiagaz; ez da formatu horretan ikusi

Urteurren jaialdia
20:30ean hasiko da
eta sarrerak 5 euroan
erosi ahalko dira

ahalko den emanaldi bakarra: Tessa Andonegik eta Libe Mendizabalek, *Behobia - SS - Txaloka Ero Moduan* mikroantzerkia eskainiko dute. Ospakizuna borobiltzeko, Amaia Elizaranek eta Xabier Zeberio *Pool* ikuskizuna eskainiko dute publikoan bilduko direnentzat.

Jose Arnau Belen valentziarrak irabazi du 18. Durangoko Pintura Lehiaketa

MARRAZKIGINTZA • A.M.

Beste behin ere, Durangaldetik kanpokoak saritu dituzte Villa de Durango pintura lehiaketan. Durangaldeko Artisten Elkarteak txapelketa antolatzen duen 18. aldia izan da aurtengoa. Edizio honetan 34 lan aurkeztu dituzte lehiaketara. Jose Arnau Belen valentziarra izan da irabazlea, eta 600 euro jaso ditu lehiaketa irabazteagatik. Bigarren eta hirugarren sariak

Guztira, 34 lan aurkeztu dituzte lehiaketara; irabazleak 600 euro jaso ditu DAEn eskutik

Bilbora joan dira. Juan Carlos Arestik eta Jose Ramon Murok jaso dituzte, hurrenez hurren. Elkarteko kide den Azucena Fernandezek jaso du tokiko onenaren saria. Egun Muskizen (Bizkaia) bizi den arren, elkarteko kidea da Fernandez; 2017an berak irabazi zuen sari nagusia. Urtero legez, Miguel Zugazak banatu ditu suariak. "Gero eta parte-hartzaile gehiago ditu lehiaketa honek. Kanpotik datoz asko eta lehiaketak duen garrantzia adierazten du horrek", adierazi du Zugazak.

Marie de Jongh taldeak Espainiako Arte Eszenikoen saria jasotako 'Izar' obra dakar Berrizera

Barikuan izango da 'Izar' emanaldia, Berrizko Kultur Etxean; 18:15ean hasiko da eta 60 minutuko iraupena du

ANTZERKIA • A.M.

Marie de Jongh konpainia haur eta gazteentzako atalean saritu dute Espainiako Arte Eszenikoen sarietan. *Izar* obra aurkeztera datoz barikuan. Izar da protagonista, sei urteko neskatila. Pianista handia bihurtzeko bidean dago gaztea, baina gurasoek ezarritako diziplina zorrotzaren ondorioz, labirinto emozional batean murgilduko da.

Konpainiaren gainontzeko obrak bezala, Jokin Oregik sorturiko eta zuzendurikoa da *Izar*. Urteotan konpainiak garatu duen

"nortasun propioa" izan da epai-mahaikideek saria emateko arrazoi nagusia. "Balio artistiko eta tekniko eztabaida ezineko muntatzeak sortu dituzte", adierazi zuten epai-mahaikideek.

Hamar urteko ibilbidea du Marie de Jongh konpainiak, eta hainbat sari jaso ditu hamarkada honetan. *Izar* ikuskizunak, adibidez, Feten 2018 espazio eszenikorik onenaren saria jaso du. Horrez gainera, Avignon Off jaialdiko Tournesol saria jaso zuen 2015ean, eta iaz, Espainiako Max saria.



Izar neskatila da protagonista.



Innovation
that excites



APROBETXATU
WLTP ARAUDI BERRIA ETA
LORTU NISSAN X-TRAIL BAT
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA

Arriandi, 12 48215 Iurreta Tel. 94 620 50 00

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km.
Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.



Aitor Iturriaga
Zugazartaza
Igerilaria
Durango | 1971

“Surflariak olatuak noiz sortuko egoten dira eta gure kasuan kontrakoa zen: itsaso lasaiaren zain egoten ginen”

Aitor Iturriaga durangarrak eta Jon Ibarrola barakaldarrak Kantauri itsasoa igerian zeharkatu dute: 700 kilometro eta 80 etapatik gora. Hiru urte iraun duen abentura da.

IGERIKETA • JOSEBA DERTEANO

**Baionan itsasoratzen den Adur ibaia-
ren ahotik Galiziako Ortegal lurmu-
turrenaino. Besakadaz besakada,
puntu biak igerian lotu dituzte. Behin
erronka amaituta, poza eta gehiagio-
ren gosea. Abentura gehiago dituzte
buruan.**

**Zelan murgildu zineten abentura
honetan?**

Ordubete inguruko zeharkaldiko probetan parte hartzen genuen, baina zeozer luzeagoa gura genuen eta geure kabuz erronkak egiten hasi ginen. Egin dugun abentura honek fase bi izan ditu. 2015 eta 2016an Euskal Herriko kosta osoa egin genuen, Onton-en —Kantabria, Bizkaiagaz muga— hasi eta Baionako Adur ibaia itsasoratzen den tokiraino. 21 etapatan, 200 bat kilometro. Orduan hiru lagun ginen, Bittor Zabala durangarra ere gugaz zebilen eta. Hori amaitu ostean, Kantauri itsaso osoa egitera animatu ginen.

Beste 500 bat kilometro, 62 etapa ingurutan. Bigarren fase hori Jonnek eta biok egin dugu. Bittorrek ezin zuen, lan kontuengatik. **Logistikoki konplikatuak izan da?**

Bai. Etapak egiten joan ahala, gero eta urrunago joan behar genuen eta kotxeagaz kilometro asko egitea eskatzen zuen. Esaterako, azken etapa etxetik 600 kilometrora zegoen. Beraz, ezin ginen egun berean joan eta itzuli. **Itsasoan nork lagundu dizue?** Piragua zaleak diren hainbat lagunek lagundu digute. Bakarrik ere ibili izan gara, buia berezi batzuetan gure telefonoak, giltzak eta abar sartu, gerrira lotu eta aurrera. Baina hori oso arriskutsua da, edozer gertatuta ere bakarrik zaudelako. Itsasoaren egoera oso aldakorra da.

Zenbat kilometroko etapak izan dira?

13 kilometroko batez bestekoa izan dugu. Hiru-lau orduko jarduna da, nahiko dominatuta dugun

distantzia. Etaparik luzeenak 16 bat kilometro izango zituen.

Itsasoak agintzen zuen noiz igerian aritu eta noiz ez?

Gure arazorik handiena horixe zen. Azkenengo etapak astean zehar egin ditugu, egun aproposa egiten zuenetan. Sarritan metro biko olatuak zeuden eta horrela ezin zen igeri egin. Surflariak olatuak noiz sortuko zain egoten dira, baina gure kasuan kontrakoa zen: itsaso lasaiaren zain egoten ginen.

Itsasoan beldurrik pasatu duzuen unerik egon da?

Bai, jakina. Bi-hiru etapatan gaua egin zitzaigun. Behin, arratsaldean joan ginen Sokoatik Getariarako etapa egiten. Erraz egingo genuela pentsatzen genuen, baina korrontea kontra harrapatu genuen eta gaua egin zitzaigun. Ez ginen kapaz tokiak bereizteko.

Surflari batzuk aurkitu genituen eta haiek esan ziguten non zegoen barrurantz joateko korrontea. Beste behin, Zumaiatik Oriora, galerna bat zegoen aurreikusita arratsalderako, eta konbentzituta geunden horren aurretik amaituko genuela etapa. Baina, ez, galernak bete-betean harrapatu gintuen. Piraguistak gerora kontatu zigunez, piragua birritan irauli zitzaion. Gu konturatu ere ez ginen egin. Nahikoa geneukan amaierara heltzen.

Gauza kuriosoak ere gertatuko zitzaizkizuen.

Horrelakoak ere bai. Behin, igerian hasi, eta etapa luzea zenez burua altxatu barik jarraitu genuen, jo eta su ordubetean. Burua jaso genuenean, alde batera eta bestera begiratu eta ez zegoen piraguistaren arrastorik. Zeozer larria gertatu zitzaiolakoan buelta

erdi eman genuen. Beste ordubete igerian. Hondartzara heldu ginen, hareatan eserita aurkitu genuen. Bidean galdu egin gintuela eta bueltatzea pentsatu zuela esan zigun. Ordu bian igerian alferrik ibili ostean, berriro ekin genion etapari.

Zein izan zen momenturik politena?

Une politak ia denak izan dira. Tokian tokiko jendeak eskaini

“

**Behin galerna bat
hasi aurretik amaitu
gura genuen etapa,
baina bete-betean
harrapatu gintuen”**

—

digun laguntza ikaragarria izan da. Arratsalde batean ezagutu genituen batzuek sei egunetan lagundu ziguten itsasoan. Beste piraguazale batzuek sare sozialen bidez ezagutu gintuzten. Gu laguntzera tematu ziren eta azkeneko dozena bat etapetan lagundu ziguten. Eskertzekoa da.

Amaitu zenutenean, itsaski-jan bategaz ospatu zenuten?

Zentzu batean zapore gazi-gozoa geratu zitzaigun. Alde batetik, poz handia, eta, bestetik, hustasun moduko bat. Azken urte bietan itsasoari begira egon garelako etengabe. Amaitu genuenean, elkar besarkatu eta elkarri esan genion: “Eta orain zer?”.

Bada, zeuk esango duzu. Orain zer?

Baditugu beste erronka batzuk buruan, pertsonalak zein taldekoa [Bisigu taldea deitzen dira] egitekoak. Komentatu izan dugu Formentera irlari itzulua ematea... Zeozer irtengo da. Edozelan ere, argi dugu erronka laburragoak eta denbora gutxiago eskatzen dutenak izango direla.

Besterik gehitzeko?

Nire emazte Inesi eta seme Ikerri eman didaten laguntza eskertu gura diet. Nik erronka hau egin izanaren merituen zati handi bat euren ere bada.



Aitor Iturriaga durangarra eta Jon Ibarrola barakaldarra neopreno-jantziak soinean, erronkako etapa batean.

Hiru Haundiak mendi proban Durangaldeko 130 bat lagunek parte hartuko dute

Lehenengo korrikalaria Otxandiotik 02:30ean igaroko dela aurreikusten dute; Anbototik 04:00 aldera

MENDI LASTERKETA • M.ZUAZUBISKAR

Urte biren ostean, hemen da berriro ere Hiru Haundiak proba entzutetsua. 1.711 korrikalarik gaur gauerdian hartuko dute irteera, Murgian, eta Gorbeia, Anboto eta Aizkorri mendiak igo ostean, Araia-
ra heltzea izango dute helburu. Helmugara heldu aurretik, eskualdetik igaroko dira korrikalariak. Otxandiotik lehenengoa 02:30ean igaroko dela aurrekisten dute antolatzaileek, eta Anbotoko puntatik, 04:00 aldera.

Beste urte batez, Durangaldeak ordezkaritza zabala izango du 101,6 kilometro eta 5.126 metroko desnibel positiboa duen ibilbidean. Aurtengo edizioan eskualdeko 130 korrikalarik parte hartuko dute. Esaterako, hauek egongo dira irteeran: 2010eko eta 2012ko irabazlea den Oihana Azkorbebeitia, eta Arkaitz Iturriagaetxebarria eta Erlantz Zaldunbide, iazko Basque Ultra Trail lehiaketako azken lasterketako bigarren eta hirugarren sailkatuak.



Otxandiotik, Urkiolatik eta Anbototik igaroko dira korrikalariak. GORKA LARRINAGA.

Gurutze Frades 24. sailkatu da Munduko Ironman Txapelketan, bere marka 20 minutu onduta

Aurtengoa iurretarraren hirugarren parte-hartzea izan da; 226 kilometroak 09.26.18ko denboran osatu zituen

TRIATLOIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zapatuan Munduko Ironman Txapelketa jokatu zen Kona hirian, eta bertan izan zen Gurutze Frades triatleta. Iurretarrak 24. postuan amaitu zuen proba. Igerian, bizikletan eta korrika egin beharreko 226 kilometroak 09.26.18ko denboran osatu zituen. Bere marka 20 minututan ontzea lortu bazuen ere, Frades ez zen oso gustura geratu egindako lasterketagaz. “Nahiz eta iazko denbora hobetu, ez dut

egin espero nuen lasterketa”, aitortu zuen triatleta iurretarrak lasterketa amaitu bezain laster.

Konan jokatzeko den lasterketan hirugarren parte-hartzea zuen aurtengoa Fradesek, eta sare sozialetan jakitera eman zuenez, lasterketan “hainbat akats egin” zituen eta, horrelako lasterketetan, “ordaindu” egiten dira akats horiek. Iurretarrak hainbat gorabehera izan zituen 226 kilometroetan: igeriketako zatian taldetxo baten


zihoala, ibilbidez nahastu ziren. Ondoren, bizikletako zatian bost minutuz gelditzera behartu zuten. “Aurreko borroka horretan egoteko, ezin da hanka-sartzerik egin, eta nik egin ditut. Hori gutxi balitz, zortea ere aldeko izatea ezinbestekoa da eta nik gaurkoan ez dut izan”, esan zuen.

Hala ere, aurreko urte biek alderatuta, aurtengo Konako Munduko Ironman txapelketatik “osorik” eta “indartsu” irten dela adierazi zuen Fradesek. Iaz 22. postuan helmugaratu zen, eta 2016an 33. izan zen.



Hirugarrenez izan da Konako lasterketan Frades.

Asteko kirolaria



ANDER JAUREGUI MARTIN

Durango, 1994

Goleatzaile sena erakutsiz, Andoni Jaureguik gol bi sartu zituen joan zen asteburuan, lurretako futbol taldeak Loiu 4-0 menderatu zuen

“Aurreko hiru partiduetan golik sartu barik nengoen eta golak konfiantza ematen du”

Aurrelaria goletik bizi da eta Ander Jaureguik bi sartu zituen azken partiduan lurretakogaz

partiduan. Aurten ere Hirugarren Mailara igotzeko borrokan aritzea dute helburu.

Markagailuari begiratuta, partidua erraza izan zela dirudi.

Ez pentsa. Loiu defentsa askogaz etorri zen eta gol denak azkenengo 20 minutuetan heldu ziren. Bata bestearen atzetik.

Zeurea izan zen markagailua estreinatu zuen gola?

Ez, nireak azken biak izan ziren. Lehenengoan, erdibidean zegoen baloia, eta atezainaren gainetik bota nuen. Bigarrena area txikian baloia bultzatuta lortu nuen. Minutu batean sartu nituen biak. **Sarritan golerako sena da gakoa.** Dударик barik, eta niri horixe kostatu izan zait gehien. Hegaletara mugitzen naiz sarritan, baloia duenari alternatibak eskaintzeko eta espazioak zabaltzeko. Txikitan

erdipunta nintzen. Nagusitan hasi naiz aurrelari jokatzeko, eta arean tokia bilatzea kostatu izan zait batzuetan. Baina gol biak une egokian area barruan adi egotearen ondorio izan ziren.

Golak konfiantza ematen du?

Aurreko hiru partiduetan golik sartu barik nengoen eta golak lasaitasuna ematen du. Lehenengoa heltzen denean, konfiantza gehiago izaten duzu.

Aurrelari bat goletik bizi da.

Bai. Azkenean jendeak galdetzen dizuna horixe da: zenbat gol daramatzazu?

Hirugarren denboraldia daramazu lurretakon. Gustura zabilta?

Gustura ibiliko nintzen eta entrenatzailearen konfiantza izango nuen talde bat gura nuen eta horixe aurkitu dut lurretakon. Hemen nabilenetik ia partidua guztiak jokatu ditut.

Lurretako Hirugarren Mailara igotzetik gertu geratu zen iaz. Aurten igoera duzue helburu?

Borroka horretan egon gura dugu. Ondo hasi gara eta horrek indarra ematen du. Ohorezko Maila kategorian zaila da, badakigu, baina taldea konfiantzagaz dago.

Orain arte jokaturako dena irabazi dute Zornotzak eta Tabirako Baquek

Klub bietako talde nagusiek indartsu eta sasoian ekin diote aurtengo denboraldiari



Zornotza saskibaloit taldeko entrenatzaile Mikel Garitaonandia jokalariei aginduak ematen. ZornotzaST.

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Ez dago hobeto hasterik. Durangaldeak saskibaloian dituen klub nagusi biek sasoian ekin diote denboraldiari. Zornotzak Zilarrezko Ligan eta Tabirako Baquek —gizonetan zein emakumeetan— Euskadiko Lehen Mailan, orain arte jokaturako guztia irabazi dute.

Zornotzak hiru garaipen daramatza. Zilarrezko Ligan dagoenetik, izan duen hasierarik onena da

Zornotzak hiru garaipen daramatza; Zilarrezko Ligan dagoenetik, izan duen hasierarik onena da

Tabirakok, gizonetan zein emakumeetan, bina garaipenegaz hasi du aurtengo denboraldia

da. Inoiz hasi dute denboraldia garaipen bigaz, baina sekula ere ez hirugaz.

Tabirakoko talde biek bina garaipen dituzte. Gizonen erositasunez menderatu zuten Tolosa etxean eta latz sufrituta irabazi zuten Getxon (70-75). Emakumeek Bera Bera eta La Salle taldeak menderatu dituzte orain arte.

Adituaren txokoa

June Arboe
Sarriugarte
Korrikalaria



Kirola egitean ere libre!

Gero eta gehiago gara gure denbora librean kalera arineketan egitera ateratzen garenok. Izan ere, korrika ari naizela, edota kafe bat hartzen nagoela, gero eta jende gehiago ikusten dut arineketan; gazteak zein helduak, bakarrik, taldean, azkar, astiro, musika entzuten... Lasterketa herrikoietan ere parte-hartze kopurua izugarri igotzen ari da. Hauetariko asko neskak gara, eta argi dago gustuko dugulako egiten dugula. Niri, korrikalaria eta neska izanik, pozteko arrazoi bat iruditzen zait.

Baina, zoritxarrez, esparru honetan ere ezin lasai egon, ezin libre korrika egitera atera. Hainbatetan joan gara arineketan, eta jasan behar izan ditugu begiradak zein gustu txarreko hainbat "piropo" eta oihu, eta lasterketetan askotan sentitu dugu gutxiago garela. Baina, ez hori bakarrik; azken aldian, behin baino gehiagotan jazo den gertaera bati buruz hitz egin nahi dut: korrika gabiltzala, autoz jarraitu digute gutako askori. Bai inguru hauetan, eta baita beste hainbat lekutan ere.

Eskubidea daukagu nahi dugunean, nahi dugun lekuan eta orduan kirola egiteko, praka motzekin zein luzeekin, bakarrik edo lagunduta. Inolako errespetu falta eta jazarpenik jaso gabe. Ez dugu inorentzako korrika egiten, nahi dugulako egiten dugu korrika. Ez dugu beldurrik pasatu nahi neguan iluntzean joan behar izateagatik kirola egiten, ez dugu laguntza eskatzeko beharrik izan nahi korrika egitera joateko, bakarrik joaten ausartzen ez garelako. Ez diogu korrika egiteari utzi nahi, eta ez dugu hau merezi. Ez dugu utziko kirolak nesketan daukan gorakada hau inork zapuztu dezan. Kirola egiten ere libre izan nahi dugu!

Pilotari gazte onenek Euskal Kopa lehiatuko dute Iurretan

Kadete eta gazte mailako txapelketa berria da

PILOTA • J.D.

Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako pilotari gazte onenak elkarren kontra lehiatu jarriko ditu Euskal Kopa izeneko txapelketa berriak. Zortzi pilotarik parte hartuko dute buruz buruko torneoan, eta finalerdiak zein finala Iurretako Olaburu pilotalekuan jokatu dituzte.

Bizkaitik lau pilotari arituko dira, joan zen astean Cafés Baqué txapelketa irabazi zutenak, hain

zuzen. Gipuzkoako eta Arabako lau pilotariak federazio biek antolatutako txapelketak irabazi dituztenak dira.

Finalerdiak zapatuan jokatu dituzte, 17:00etan. Kadeteetan Emaldi-Altube eta Beitia-Amiano dira jokatu diren partiduak. Gazte mailan Yuste-Etxeita eta Cortazar-Goikoetxea partiduetatik irtengo dira finalistak. Irabazleek urriaren 27an, jokatu dituzte finalak, 18:00etan.

Alberdi-Aldazabal eta Laloo-Basque bikoteek jokatu dute San Fausto Zesta Txapelketako finala domekan

ZESTA • J.D.

Berriatuako Antxon Alberdik eta Aimar Aldazabalek eta Bidarteko Andoni Lalook eta Thibault Basquek 35. San Fausto Zesta Txapelketako finala jokatu dute domekan, 12:00etan, Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

Aimar Aldazabal bertatik bertara ikustea da finaleko interes puntuetako bat. Apirilean Mexikora joan zen profesional moduan jokatzera, eta bigarren partiduan lesionatu egin zen. Besoko mus-

kulu bat hautsi zitzaion, eta etxera bueltan, errekupezen ibili da. Aurrelaria den arren, atzean joka-

Aurrelaria den arren, Aimar Aldazabalek atzean jokatu du; besoko lesio batetik bueltan da

tu izan du, apurka konfiantza hartzen joateko. Domekan ere atzean arituko da.

DIBA
K O O P E R A T I B A

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

3D PRINT COLOR

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

EPOCA SUKALDEAK

-%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

IURRETA KOPISTEGIA

-% 5 eskola eta bulego materialean.
-%5 musika, opari eta liburuetan.
Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologan, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

URKI KOPISTEGIA

-% 10 amantaletan
-%10 jolasetan

URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.
-% 10 papergintzan.



ZIRKIN gimnasioa

-Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.



KIROL ERROTA gimnasioa

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.



OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan.
(Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin)



Anbotorenlagunak

Lekuan lekuko lagu-

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Babes ofizialeko etxebizitza salgai. Abadiñon Muntsaratz eta Zelaia artean. Bizitzen sartzeko prest. 85m karratu. Hall-a, 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoia, garajea eta trastelekua. Tel.: 620-24 66 33

PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA

Durangaldea. Neska arduratsua baldin bazara eta Durangon pisu bila bazaude deitu telefono honetara. Tel.: 633-80 43 58

Lana Formakuntza
LAN ESKARIAK
LAN ESKARIAK ETXEO LANAK

Etxeko lanak egiten lan bila nabil. Lan bila nabil etxeko lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 633-59 07 32

Lan bila nabil garbiketan. Nikaraguako mutil bat lan bila dabil garbiketan. Arduratsua naiz eta beste edozein lanetan ere aritzeko prest nago. Tel.: 674-40 35 76

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan. Tel.: 622-50 47 11

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Orduka edo gauetz lan egiteko prest. Tel.: 602-51 27 79

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-76 21 47

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko langile moduan. Tel.: 632-70 88 65

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila, nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbike-tarako. Barneko, kanpoko zein or-dukako langilea. Tel.: 643-13 01 35

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Gizon arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetak langile moduan. Baita gaueko zainketak ospitalean ere. Espe-rientzia dut pintaketan eta mendiko lanetan: Tel.: 602-01 61 86

Gizon arduratsua lan bila dabil. Gizon arduratsua eta esperientziarekin lan bila nagusiak zaintzen, barneko, kanpoko zein asteburuetak langilea. Baita gaueko zainketak ospitalean ere. Esperientzia dut pintaketan eta mendiko lanetan: Tel.: 632-30 47 00

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila nagusiak zaintzen, barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetak langilea. Baita gaueko zainketa ospitalean ere. Taber-nak garbitzeko edo etxeak garbitzeko ere prest nago. Erreferentziak ditut: Tel.: 631-92 55 25

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila nagusiak zaintzen, barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetak langilea. Baita gaueko zainketa ospitalean ere. Tabernak garbitzeko edo etxeak garbitzeko ere prest nago. Erreferentziak ditut: Tel.: 632-72 50 54

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 632-24 73 23

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume arduratsua lan bila dabil nagusiak zaintzen edo garbiketan. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Esperientzia dut. Berehala hasteko moduan. Tel.: 631-71 70 41

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egin nahi dut, barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 688-66 10 45

Umeak zaintzen lan bila nabil. Neska euskalduna lan bila dabil umeak zaintzen. Elorrion zein Durangon, 16:00etatik aurrera. Tel.: 669-36 68 73

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Garbiketan edo nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Tel.: 602-54 40 61

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Kanpoko, barneko, gauetako, asteburuetak zein ordukako langilea. Tel.: 631-26 50 03

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea lanaldi osoan, erdian, orduka, asteburuetan zein gauetz lan egiteko prest. Tel.: 622-50 47 11

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak

zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea gauetz, asteburuetan, edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-92 55 25

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lane-tan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel. :633-59 07 32

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 642-98 60 19

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 698-88 10 12

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-00 59 52

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nagusiak edo umeak zaintzen edo etxeko garbiketan. Kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Paperak ditut. Tel: 674-49 61 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, gauetz, asteburuetan, orduka... lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-04 63 46

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, or-dukako zein asteburuetak langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-13 95 47

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko, gaueko zein ordukako langile eskarmentuduna. Tel.: 665-13 31 13

Umeak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel.:674-51 85 43

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil umeak edo nagusiak zaintzen. Baita garbiketan ere. Tel.: 672-65 46 47

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Barneko, kanpoko, ordukako edo gauetako langilea. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Emakume arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan egoten ere. Barneko zein kanpoko langilea asteburuetan lan egiteko prest. Berehala hasteko moduan. Tel.: 631-92 55 25

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 698-69 61 94

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen etxe zein ospitaleetan. Baita eraikuntzan edo mendiko lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-01 61 86

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen etxe zein ospitaleetan. Baita eraikuntzan edo mendiko lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-30 47 00

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka edo kanpoko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 651-50 86 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauetz edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 688-86 07 79 Tel.: 631-75 48 19

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Gauetz, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-57 28 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsonak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Kanpoko zein barneko langilea gauetz, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-93 76 13

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Berehala hasteko prest nago. Paperak ditut baita kurtso bat ere. Tel.: 605-37 89 55

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetak langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-71 70 41

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Erreferentzia eta esperientzia ditut. Tel.: 664-82 64 43

LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

Klase partikularrak ematen ditut. Euskaldun irakaslea klase partikularrak emateko prest eta umeak zaintzeko prest. EGA eta ingeles tituluak ditut. Hainbat urteko esperientzia. Duran-galdea. Tel.: 692-71 66 19

LAN ESKAINTZAK
LAN ESKAINTZAK OSTALARITZA

Abadiñoko Abarketeruena tabernan sukaldaria behar da.

Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da

Bidali curriculuma: abarketeruena@gmail.com helbidera edo deitu 660 18 74 05 zenbakira.

LAN ESKAINTZAK ETXEO LANAK

Etxea garbitzeko eta umea zaintzeko pertsona euskaldunaren bila. Epe luzerako, pertsona euskaldun baten bila gabiltza. Eginbeharrak: 1- Etxeko lanak astean bi egunetan goizez (1h30minutuko tanda bi): hautsa kendu, plantxa, komuna garbitu leihoak garbitu,... 2- Ume jaiobarria dugu. Gaixotzean egun osoa berarekin egoteko prestutasuna behar dugu.

LAN ESKAINTZAK IRAKASKUNTZA

DBH eta Batxilergoko ikasleel la-guntza akademikoa. Gaztelania, gizarte, euskara eta filosofia ikasgai-etan laguntza emateko prest. Testu iruzkinak, etxerako lanak, ikasteko teknikak etab. Astean saio bakarra: 18€/saioko Astean bi saio: 15€/saioko

Klase partikularrak emateko norbait behar dugu. 3 DBHn da-goen ikasle bati klase partikularrak emateko norbaiten bila gabiltza Berrizen. Tel.: 663-39 75 88

Denetarik
HARREMANAK
LAGUN BILA

Lagun talde bat osatu gura dut. Bidaiaitzeko, asteburu pasak egiteko... 50 eta 60 urte arteko emakumeen bila nabil. Hamar bat laguneko taldea osatu gura dut. Interesa baduzu, deitu Tel.:636-84 72 62 (Mariaje)



Botikak	
BARIKUA, 19 - 09:00-09:00	MELERO, ROSA MARI
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI	
San Pedro 31 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 22 - 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
ZAPATUA, 20 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 23 - 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	09:00-22:00
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 24 - 09:00-09:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	09:00-22:00
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 25 - 09:00-09:00
09:00-22:00	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
DOMEKA, 21 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

Hilaren 19an **Nahikarik** urteak bete zituen. Zorionak etxekoon partez!

Gaur 10 urte potolo egin dozuz. Ondo-ondo pasa zure egune, **Nerea**, eta muxu handi bat aitaren eta amaren partez. Mua!

Zorionak, **Helene**, urriaren 16an 9 urte bete zenituen. Muxu handi bat zure familiaren partez.

Durangoko **Angel** eta **Liher** Aniak urteak betetzen dituzte urriaren 15ean eta 23an. Zorionak eta mosu handi handi bat familia guztiaren partez.

Zorionak, **Lander** danon partez!

Zorionak etxeko danon partez, guapi-sima zauz eta holan jarraitu.

Zorionak gure etxeko erreginari. Handia zara, 3 urte dituzu eta. Musu handi bat zure gurasoen partez.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA

Tel.: 94 681 43 85

CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

HELDUENTZAT
AMEK EZ DUTE
Kariña Agirre
2018

UME ETA GAZTEENTZAT
JACK TXIKIREN BALADA
Mikel Valverde
2018

MUSIKA
BLACK IS BELTZA
Askoren artean
2018

“Itzartuk beste aisialdi mota bat sustatzeko aukera ematen du, euskaraz”

Hezkidetza eta euskara oinarri hartuta, beste aisialdi mota bat posible dela erakutsi du Itzartuk. Ikasturtea abiatu berritan, prest dute lehen hiruhilerako proposamena

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Lau urte beteko dira otsailean Itzartu gazte taldea sortu zela. 10 urtetik gorako nerabeei zuzenduta, balio hezitzaileetan oinarritutako aisialdia eskaintzea izan dute helburu. Andrea Bilbao eta Gaizka Loizate Itzartuko hezitzaileak dira, eta proiektuan parte hartzera animatu gura dituzte gaztetxoak zein hezitzaile izan gura dutenak. Berbaro elkartera joatea baino ez da behar. Denak izango dira ongiatorriak.

Datozen egunetan hasiko du Itzartuk aurtengo aisialdi proposamena. Zein izango da eskaintza hori?

Andrea Bilbao: Hiruhileko egitarauak landuko ditugu aurten, eta aurretik iragarriko ditugu prestatutako ekitaldiak. Horrela, familiariek eta gaztetxoek euren denbora aldez aurretik kudeatzeko aukera izango dute.

Gaizka Loizate: Lehenengo hiruhileko honetarako, gaupasa bat eta aterpetxe batera irteera prestatu ditugu, besteak beste. 10-14 urte arteko neska-mutilei zuzendutako eskaintza da eta ekintzarik gehienak doakoak dira; bountario lana da gurea.

Zer landu gura duzue gazteekin?

A.B.: Aisialdi taldea garen aldetik, haien artean hezkidetza landu gura dugu, euskaraz. Horrez gainera, ikastetxeen arteko aurreiritziak baztertu eta talde heterogeneoa lortzea gura dugu, aisial-

dian denen artean harremantzeko aukera izatea; azken finean, denek dute jakin-min eta bizipoz berdina. Urteotan, arlo horretan, aurrerapauso handiak eman ditugu. **Berrikuntzak ere izan dira...**

G. L.: Urteko egitaraua hiruhileka zatitzeaz gainera, logoa ere aldatu dugu. Aurten, hezitzaile berri

asko sartu dira eta belaunaldi berriagaz bat datorren irudia sortu dugu.

Sare sozialetan ere indartu gura du bere presentzia Itzartuk?

A. B.: Bai. Gaztetxoak sare sozialetan murgilduta daude

eta gure ekintzen berri emateko tresna oso baliagarriak dira sareok. Euren egunerokoan sartzeko errazena ere bai. Pinak eta txapak ateratzea ere pentsatu dugu.

G.L.: Hori dugu erronkarik zailena. Sare sozialetan sartuta, gainean egon behar delako egunero. Dena den, ikastetxeetan kartelak jarriko ditugu horren berri emateko.

Durango beharrezkoa da Itzartu?

G.L.: Bai. Eskolatik kanpo, kirol elkarreetatik kanpo, ez daukate beste gaztetxo batzuekin harremantzeko aukerarik. Itzartuk beste aisialdi mota bat sustatzeko aukera ematen du, euskaraz.

A.B.: Aisialdiari dagokionez, 10-14 urteko adin tartean gabezia dago eta modu oso pasiboan jolasten dira. Arratsaldea Ezkurdin ematen dute askok, sarritan mugikorrek. Euskara eta hezkidetza sustatzeko beharra dagoela uste dugu.

Erreferente bihurtu da Itzartu?

A.B.: Adin tarte horretan, bai. Harreman informala, lagunartekoa lortu dugu eta zer egingo dugun galdezka etortzen dira. Gaztetxoek parte hartzen dute eta interesa dute. Gauza politak lortu ditugu.

A.B.: Ekintzaren araberakoa ere bada parte-hartzea, baina beti dago talde indartsu bat ekintzak aurrera eramateko.

Itzartun parte hartzera animatu gura duzue. Ze ekarpen egin diezue zuei?

G.L.: Norberaren egunerokotik irteerako aukera ematen du, eta gure arteko harremana oso ona da.

A.B.: Hala da, bai. Bestalde, atzera begiratuta, lortutako aurrerapausoak ikusita, halako harrotasun bat ere sortzen du. Beti sinistu dugu proiektu honetan, baina ez genekien zein arrakasta izango zuen. Umeak benetan gustura daudela ikustea, disfrutatzen dutela ikustea poztekoa da.

Andrea Bilbao Flores
Durango | 1994

Gaizka Loizate Oteiza
Durango | 1996

Itzartu gazte taldeko hezitzaileak

Lauhortza

Alina
Ahtamon
Medikua



Errepidean behiak edota ardiak agertzen direnean...

Gaur isolatuta dagoen herrixko baten zailtasunak aurkeztu nahiko nizkizueke. Adibidez, gidatzea oso zaila da errepidea harrizkoa den edo lokatza dagoenean. 4x4ko autoarekin baino ezin da pasatu. Gainera, horretaz aparte, ez dakizue zelako zaila den behiak edota ardiak agertzen badira autoaren aurrean. Beraz, horrelako egoeretan, ezin da 40 kilometro orduko abiadura baino gehiago gidatu. Abiadura motela litzateke zuentzat?

Baina, zertarako horrenbeste presa? Nora ailegatu nahi dugu bizitzan? Zergatik ez geratu, edo motelago ibili, behiak edota ardiak pasatzen utzi, eta pasatzen diren bitartean abere horiez gozatu? Ez badakizue ere, isolatuta dagoen herritxoan arnasa hartzea erraz-erraza da, eta tomateak, tipulak, porruak, baratzuriak, azenarioak eta gainerakoek zapore eder-eder-rra dute.

Batzuetan, gizarteak, aurrea egin nahian, atzera baino ez du egiten. Gure aiton-amonak nola bizi ziren ahaztu zaigu. Ez gara kapaz euren bizimodua gure garapenera egokitzen. Batzuetan ez gara konturatzen abiadurak zelako kaltea egiten duen. Garapena baliotsua da, baldin eta bere kurtso naturalari jarraitzen badio. Ariketa bat proposatzen dizuet: astean behin behintzat, gelditu zaitezte, pentsatu zer forma daukan gure Lur planetak, nortzuk zareten, zer nahi duzuen bizitzan, zein izango den zuen abiadura errepidean behiak edota ardiak agertzen direnean... nik jada sei hilabete daramatzat hori egiten.

EUSKARALDIA DURANGALDEAN

11 egun euskaraz

**AZAROAREN 23tik
ABENDUAREN 3ra**